

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Sakonera handiko mugimenduak

PELLO OTXANDIANO > 11

KOADERNOA

Putak eta emakumeak

JOANA GARMENDIA > 21

2019ko martxoaren 16a | XIII. urtea • 612. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



BALTISTAN, MENDIKO ELKARTASUNA

> 12 BALTISTAN FUNDAZIOA

**Badatoz Askapenaren Brigadak,
joan-etorriko elkartasunean** 04

**Beldurra galdu duen Aljeria eta
beldur den boterea** 07

Eskozia, agertoki katalanerantz? 08

**Baltistan Fundazioa, Hushe
ibarraren garapena sustatzen** 12

Sarean 18

**Elkarrizketa: «Korosagasti» filmeko
zuzendari Asier Susaeta** 22

Kanta beltzak 24

**Arteak Ireki, ikuskizun kopurua
murriztearen aurka** 27

Juantxo Egañaren behatzulotik 31



SINADURAK:

03 **Isidro Esnaola:** Disidentziaren aurrean jokamolde ezberdinak

10 **Oier Gorosabel:** Bortxaketa bikotearen barruan

11 **Pello Otxandiano:** Sakonera handiko mugimenduak

16 **Nekane Zinkunegi Barandiaran:** Greba deialdiko irakaspenak


16 **Joxean Agirre:** Espainia

17 **Unai Gaztelumendi**

20 **Gorka Etxebarria Dueñas:** Tulipanak eta udalak

21 **Joana Garmendia:** Putak eta emakumeak

30 **Itziar Elizondo:** Hurbilena «feministarazi»



{ datorrena } **Isidro Esnaola**

Disidentziaren aurrean jokamolde ezberdinak

Steve Bannonek elkarrizketa batean esan zuen egun Vox alderdia dela Estatu espainoleko alderdi garrantzitsuena, eztabaida politikoaren nondik norakoak markatzeko gai delako. Baieztapen horrek zalantza asko sortzen dizkit. Baina ikuspegi hori indartzen duen teoria bat topatu dut: Overtonen leihoa deitzen dena. Funtsean, Joseph P. Overtonek esan zuen ideia baten bideragarritasuna ez dagoela politikarien lehenetsun menpe. Iritzi publikoak zer den onargarria definitzen du eta normalean balekoa dena tarte estu batean kokatzen da. Ideia batek, bitarte horren baitan sartzen bada, aurrera egiten du; bestela, ez du etorkizunik. Gogoeta horren haritik, beste komentaria politiko batek, Joshua Treviñok, proposamen baten onargarritasunaren urratsak definitu zituen: pentsaezina, erradikala, onargarria, zentzuduna, popularra eta politikoa. Sailkapena horretan, azken lau urratsak soilik sartzen dira Overtonen leihoan, Treviñoren iritziz. Eskema horretatik tiraka, eskuineko agitatzaileek postulatu zuten ideia erradikalak zabalitzen diren neurrian, moderatuagoak diren beste batzuk zentzudunak kontsideratuko direla. Horrela, nolabait esateko, “leihoa” mugitu egin daiteke mutur batera edo bestera.

Ez dirudi, baina, teoria oso zuzena denik. Sinpleegia. Maila batean egia da, adibidez, gizartean banketxeen nazionalizazioaz hitz egiten ez bada, zaila izango dela banketxe publikorik izatea. Baina, era berean, egia da ere talde txiki bat bankuen nazionalizazioaz aritze hutsagatik ez direla banku publiko gehiago izango. Beharbada, horrelako eskema hutsalak eskuin muturreko talde horiek dirua lortzeko eta komunikabideen hauspoa jasotzeko erabiltzen dituzte. Eztabaida politiko errealetan gauzak askoz konplexuagoak dira: zenbait ideia onartuak izan arte hamarkadak pasatzen dira, borroka luzeak behar

izaten dira; beste ideia batzuk, aldiz, berehala egiten ditu bere gizarteak. Testuinguruak eta bestelako faktore batzuek pisu handia dute onarpen horretan, esate baterako, boteretsuen ezkutuko babesak. Hala ere, askotan boteretsuen saio horiek ere porrot egiten dute.

Eskuinak eskuin muturreko taldeak gupidarik gabe erabiltzen ditu bere probetxurako. Ezkerrak, aldiz, muturreko disidentziarekin harreman askoz korapilatsua goa dauka. Ez dakit purutasun itxura emateko beharra den edo kritikek eragindako azkura arintzeko saiakera den, baina oro har ezkerrak denbora eta indar asko galtzen ditu horrelako taldeekin. Batzuetan ezker muturrekoak oker dabilzala frogatu nahian, beste batzuetan hartutako bidearen zuzentasuna justifikatu nahian. Edozein kasutan, normalean alferrikako ahaleginak iza-

Sozialismoaren garapen historikoak erakutsi digu disidentzia ezinbesteko osagaia dela mugimendu osasuntsu batean. Disidentziarik gabe, lehenago edo geroago «zastoi» edo geldialdia iritsiko da

ten dira, ez baitago horretarako prest ez dagoena konbentzitzerik. Gainera, ez duten garrantzia ematen zaie.

Sozialismoaren garapen historikoak erakutsi digu disidentzia ezinbesteko osagaia dela mugimendu osasuntsu batean. Disidentziarik gabe, lehenago edo geroago *zastoi* edo geldialdia iritsiko da. Kritikek eta konforme ez direnek kontrapuntua jartzen diote ildo orokorrari. Hortaz, haserretu baino, jakin behar da irakurtzen zertan huts egin den, zer den falta dena lerro politikoa hobetzeko. Ezkerraren helburua ez da hiperideologizatu horiek konbentzitzea. Ezkerraren anbizioa da ideologizatuta ez dauden gehiengoak, beren kontraesan guztiekin, eraldaketa sozialera erakartzea eta gehitzea. •

BADATUZ ASKAPENAREN BRIGADAK

Udaberrian Parisera joateko aukera dago

INTERNAZIONALISMOA / Mainer Iantzi Goienetxe

Askapenaren brigadak ez dira bidaia politiko soilak. Euskal Herriak internazionalismotik eraiki behar duela eta herrien arteko babes sare bat sortu behar dela ulertzen du antolakundeak. Hori praktikan jartzeko tresna gisa sortu zituen brigadak duela 30 urtetik gora eta balantze hagitz ona egiten du. Borroka konpartitze bat dira, joan-etorriko elkartasuna. Eta bueltako lanak du pisu nagusia, ikasitakoa gurean zabaltzeaz arduratzen baitira. Aurtengo brigadetan, udaberrian zein udan, parte hartzera animatzen dute orriotako elkarrizketetan jasotako hiru testigantzek.

Bihar itxiko da udaberriko Pariseko brigadan izen emateko epea. Udakoetan apuntatzeko azken eguna, aldiz, apirilaren 21a da. Latinoamerikan, Argentina-Uruguaia, Brasil, Venezuela, Mexiko eta Bolivia dituzte helmuga; Ekialde Hurbilean, Palestina eta Libano; Europan, Grezia, Sardinia, Herrialde Katalanak eta, Aste Santuaren bueltan, Paris.

Ainhua Alberdi Askapenako kideak azken horretara joatera animatzen du jendea, «oso interesgarri dagoelako uneotan Paris: migranteak, lan erreformetatik eratorritako borroka sozialak, pil-pilean dagoen txaleko horien mugimendua... landuko ditugu. Badugu zer ikasi gure bizilagunez».

Hainbat herrialdeetako eragileekin hartu-emanak lantzen ari da Askapena 30 urte baino gehiagoan eta denbora horretan

egindako kideekin harremanetan jartzen ditu brigadistak. «Eragilez eragile herri eta borroka horien ikuspegi integral bat eskuratzea lortzen dute».

BORROKEN ERROAK ULERTUZ

Joan aurretik, formazioa jasotzen dute, herrialde bakoitzeko berezitasun eta konplexutasunak ezagutzeko. «Herrialde bakoitzaz harago, ikuspegi internazionalago batetik enfokatzeko dugu, borroken erroak eta munduaren edo sistemaren funtzionamendua ulertuz. Eta, noski, horri aurre egingo dion internazionalismo horretaz ere aritzen gara», azaldu du Alberdik.

Horrek berak laguntzen du brigadistek elkar ezagutzea gero konpartituko duten biderako.

Brigadek ekarpen handia egiten dute bai joaten diren herrialdeetan eta bai gurean, eta horren parte izatera animatzen dute. Ondoko helbide honen bidez egin daiteke: brigadak@askapena.eus.



Herrialde Katalanetako brigada. Martin Goitiandia goiko lerroan, ezkerrean.

MARTIN GOITIANDIA ROQUERO

«Ateak eta ikuspegia irekitzen dizkizu»

Martin Goitiandia Roquero 21 urteko donostiarrarentzat esperientzia bat izan da Herrialde Katalanetara egindako brigada. Alde batetik, pertsona gisa hazten lagundu dio: «Esperientziak ematen dizkizu, jendea ezagutzen duzu, tokiak... Eta ateak eta ikuspegia irekitzen dizkizu». Baina, batez ere, esperientzia indibidualetik harago, lan politikoa egiten eta militantzen jarraitzeko aukera izan da.

Joan den abuztuaren 28tik irailaren 15era egin zuen bidaia lau laguneko taldeak. Ez zuten elkar ezagutzen ordura arte eta hori izan zen, Goitiandiaren iritziz, brigadaren alde politetako bat.

Bueltan, pila bat ikasi zuen sentsazioa izan zuen, bai hango egoeraz bai orokorrean militantziaz eta ikuspegi

internazionalista barneratzeaz. «Hedabideetatik datorkigun Herrialde Katalanen irudia okerra da eta bertakoek hango egoera kontatzen dizute; orduan badaukazu ziurtasun bat». Hemendik ikusten dugunaren eta han bizi dutenaren arteko kontrasteaz jabetu da Goitiandia.

Ulertzeko beharragatik

Helmuga hori zergatik aukeratu zuen galdetuta, zintzo erantzun du: «Arazo nagusietako bat diruarena zen, ez neukan asko, baina banuen interesa azkenaldian egon den prozesuagatik eta hartu duen protagonismo handiagatik, hori ulertzeko beharra genuelako. Bestetik, horren hurbilekoa izanda eta antzekotasunak izanda, ulertzea errazagoa izan da».

Gazte donostiarrak interes handia zuen Askapenaren militatzen hasteko eta brigadaren bidez hurbildu zen. Aurtun bezala, iaz ere kanpaina jarri zuen martxan Askapenak brigadak antolatzeke. «Korreo bat dago kontaktua egiteko. Galdera batzuk egiten dizkizute: lehentasunak, baldintzak... Guztia adosten da eta gero formazioa jasotzen duzu». Askapenak kontaktuak egiten ditu, lo egiteko tokia eta abar bideratu. Egitaraua ere prestatzen du eta brigadistekin kontrastatzen du.

Prioratetik Bartzelonara

Priorat landa gunean eta Bartzelonan egin zutena ezberdina da, baina, orokorrean, hango kolektiboekin egoten ziren. Bertako berri jasotzeaz gain, brigadakoek zertara joan ziren azaltzen zuten. «Jaietan eta tokian toki zeuden gauzetan parte hartzen genuen».

Adibidez, Mallorcan egon zirenean, Palman, Grupo de Ornitologia Balear taldearekin bildu ziren, eta kontaktu zieten turistifikazioaren ondorioz behar bat ikusi zutelako zaletasunetik jarduera politikora pasa zirela. «Kolektibo feminista askorekin egon ginen, okupazio mugimenduekin... Bakoitzak bere berezitasunak erakutsi zizkigun eta, aldi berean, nola dagoen dena prozesu beraren barrenean».

Orain hurbilagotik jarraitzen ditu gazteak Herrialde Katalanetatik datozen berriak, badaki non begiratu gehiago eta non ez hainbeste, irizpide gehiago du hango egoera segitzeko.

NAIA TORREALDAI MANDALUNIZ

«Mugimendu feministako aliantzak artikulatzeko tresnak eman dizkit»

Naia Torreal dai Mandaluniz gernikarra da eta 26 urte ditu. Hasieratik zuen argi brigada feminista batean parte hartu nahi zuela, lan politiko bat egin nahi zuelako eta bere militantzia politikoa feminismoan dagoelako. Palestina aukeratu zuen. Brigada feminista emakume brigada da eta bertan konplizitate eta lasaitasun berezia sentitu du Torreal daik. Bestetik, Palestinako emakumeen eta mugimendu feministaren egoera aztertze ko aukera izan du.

Emakume palestinar anitzekin egon dira: nazio askapenean ibiltzen diren militanteak, errefuxiatu kanpamentuetan sortzen diren emakume batzordeetako kideak, herri frontekoak... «Palestina alderdi politiko eta gobernu kanpoko erakunde pila dago, baina borroka horretan emakumeen papera ez da horrenbeste jorratu. Azken urteetan garrantzia hartzen hasi da, Kurdistango emakumeekin batera».

Begi irekitze bat

Torreal dairentzat «oso-oso esperientzia aberasgarria izan da. Egia da espektatiba askorekin joan nintzela eta, alde batetik, bai izan zen begi irekitze bat. Oso barneratuta daukagu gure begirada: zer den matxismoa, zelan ematen

den borroka feminista... Eta uste dut gaitza egiten zaigula gure begirada kolonial hori gainetik kentzea. Horretan behintzat ahalegina egiten hastea oso interesgarria izan da. Gero, Euskal Herrian mugimendu feministan ematen diren aliantza eta aniztasunak artikulatzeko esperientzia horrek tresnak eman dizkit».

Erantsi duenez, «palestinar borroka mitifikatu egiten duzu eta bertara heltzean gauzak ez daude hain ondo edo zuk beste zerbait espero zenuen. Bai izan da gazi-goza. Ondo, baina errealitate oso ezberdinak daude eta 80 urte borrokan asko da».

Hartu-eman interesgarria

Gernikarrak Bilgune Feministan militatzen du eta palestinar emakumeekin antzekotasunak ikusi ditu: lurraldearen defentsan, emakume preso en diskurtsoan, gudari emakumeen ikusezintasunean... «Baina kultura politikoari dagokionez, nola ulertzen dugun feminismoa edo nola sortu ditugun aliantzak, ezberdintasunak daude. Askok ikasi nuen eta uste dut asko eramane genuela guk ere».

Askapenaren brigadak beste herrialde batera ikastera joatea proposatzen du, errespetuz, eta Euskal Herriko

borrokak eta mugimenduak azaltzea. «Zer erronka eta ahulgune ditugun azaldu genuen. Oso interesgarria izan zen hori bertako emakumeekin elkarbanatzea eta eurek ariketa bera egitea». Bidaia egin eta laster Emakumeen Mundu Martxako topaketa izan zen Bilbon, palestinarrek ere etorri ziren eta lotura polita sortu zen.

Jerusalemen hasita

Jerusalem izan zuten lehen geltoki. Handik hegora, Belenera joan ziren. Aida

«Palestinar borroka mitifikatu egiten duzu eta bertara heltzean gauzak ez daude hain ondo edo zuk beste zerbait espero zenuen. Bai izan da gazi-goza»

«Turistifikazioak inpaktatu egin ninduen, zelan Estatu israeldarrak hori aprobetxatzen duen diskurtsoa zabaltzeko, zelan jabetzen den palestinarren kulturaz saltzeko»

Camp errefuxiatu kanpamentuan egon ziren eta jarraian Ebronera jo zuten, «okupazioa gori-gori ikusten den herrira». Iparrera hartu zuten gero, Ramallahra, handik Nablusera eta ondotik Estatu israeldar ofizial horren parte diren Haifa eta Tel Avivera. «Jerusalemen eta oro har Palestinan dagoen turistifikazioak inpaktatu egin ninduen, zelan Estatu israeldarrak hori aprobetxatzen duen bere diskurtsoa zabaltzeko, zelan jabetzen den palestinarren kulturaz turistei saltzeko... Bestetik, Ramallahn emakume talde batekin egon ginen eta euretako neska gazte batek inpaktatu egin ninduen, zelako diskurtsoa eta ahalduntze prozesua bizi zuen bizi oso-oso latz baten ostean». Gazte hori Euskal Herrian egon da berriki.



Palestinako brigada Dalal Mughrabi, Amal Khilail eta Laila Khaleden omenezko muralean. Naia Torreal dai, betaurrekoekin.

MIKEL KOLOMO GURBINDO

«Beharretatik eta auzotik hasita antolatzen ari dira venezuelarrak»

Lizarrako Mikel Kolomok 27 urte bete berri ditu. Venezuelako brigadan izan zen joan den abuztuan eta lotura emozional handia sortu du herrialdearekin. «Politikoki nahiko desorekatua dago, baina nik behintzat ekarri nuen sentsazioa izan zen herritarren gehiengoa Chavezek sortu zuen iraultzaren alde dagoela, sozialismoan edo komunetan eraikitako jendarte baten alde», kontatu digu.

Herri xume bat ezagutu du bere eskubideen alde borrokan, ezin duena aitzinera egin «kanpo botereen eta batez ere oposizioaren indar edo zapalkuntzagatik». Baina berez sistema sozial hori «autogestionatzeko eta estatua aurrera eramateko oso baliagarria» dela ikusi du.

Politikoki esperientzia esanguratsua bizi izan zuen. «Ezagutzen ez nuen herrialde batera joatea eta bertako jendearekin partekatzea, informazioa ematea zein jasotzea, inoiz bizi izan ez nuen gauza bat da. Momentu alaiak eta urduriak bizi izan genituen, Venezuela zegoen bezala ikusita ezinezona, kezka... Eroso sentitzen nintzen espazio batetik atera eta jende berriarekin egunerokotasun bat konpartitzea zaila izan zen,

baina polita», deskribatu du. Bertako jendeak, dituen zailtasun guztien gainetik, kolektiboan aurrera egiteko martxan jartzen dituen mekanismoen testigu izan ziren. «Arazo handiak daude oinarrizko jaki eta tresnekin, eta kolektiboan erabiltzen zituzten aurrera egiteko».

Ezagutu zituzten eragileak herri mugimenduaren parte ziren eta euren mekanismoak zentzu aunitzetan Euskal Herrikoen antzekoak ziren, baina are kolektibizatuagoak zeuden.

Hamar egun Caracasen

Beti sentitu izan du Kolomok Latinoamerikarekin hurbiltasun bat eta Venezuelak beti eman izan dio atentzia. Izena eman eta formakuntza jaso zuen, bi aldeetako: «Euskal Herriko egoeratik transmititu nahi nuen informazioa partekatu nuen taldean eta, aldi berean, Venezuelaren testuinguru politikoan kokatu nintzen». Behin hori guztia eginda eta taldekideak ezagututa, brigada nolakoa izanen zen zehaztu zuten, baita data ere.

Lau lagun joan ziren, Baionako bi lagun, Oiartzungo bat eta bera, Lizarrakoa. «Ez genuen elkar ezagutzen eta oso interesgarria izan zen topatzea, testuinguru politiko



Venezuelako brigada bertako eragile batzuekin bilduta. Ezkerretik hasita, lehena da Mikel Kolomo.

«Venezuelaz jasotzen dugun informazioaren %90etik gora oso faltsutua dago eta ez da zilegia. Ilara luze horiek soilik argazkia ateratzeko prestatuak daude»

«Eroso sentitzen nintzen espazio batetik atera eta jende berriarekin egunerokotasun bat konpartitzea zaila baina polita izan zen»

ezberdinetakoak garelako». «Nahiko estresagarriak» izaten ziren beren egunak, batez ere Caracasen. 20-22 eguneko brigada egin genuen eta lehenengo hamar egunak Caracasen bizi izan genituen. Bizpahiru bilera genituen egunean, momentuan zegoen garraioaren arazoarekin pila bat kostatzen zitzaigun mugitzea eta batetik bestera ibiltzen ginen... Eragile batzuk oso interesgarriak ziren, gazte mugimenduarekin lotuak, beste batzuk ez hainbeste. Baina sentsazioa genuen ez genuela momenturik hori guztia dosifikatzeko».

Mendialdean, lasaiago Caracasetik mendialdera jo zuten eta han lasaiago ibili ziren. Meridan izan ziren, besteak beste. Kontsumo taldeak ezagutu zituzten, nekazariarekin harremanak

zuzenean egiten zituztenak. «Hori interesgarriagoa suertatu zitzaigun. Sentsazioa izan genuen Chavezek aurrera eramane nahi izan zuen hori, Madurok agintea hartu zuenetik gelditu zen prozesu hori, sozialismoaren eta komunak sortzearen ildotik, berriz ere indarra hartzen ari zela, taldearen beharretik hasita».

Hirian denetarik eragileekin bildu ziren, internazionalismoarekin harremana zutenekin, auzoak antolatzen zituztenekin... Hori ere ikaskuntza handia izan zuten: «Autogestioaren bidez kudeatzen zuten auzoari zegokion guztia, argindarraren eta uraren arduradun izatetik hasi eta osasun etxe eta eskoletara. Beharretatik eta auzotik hasita antolatzen dute jendarte eredu».



RYAD KRAMDI | AFP

IKUSMIRA

BELDURRA GALDU DUEN ALJERIA ETA BELDUR DEN BOTEREA

Buruko zapiak eta aurpegia ezkututzen dion Aljeriako ikurinak ez dute emakumearen begirada estaltzea lortzen. Begirada zorrotza, aurrean duen poliziaren begiradak kikiltzen ez duena. Aljer hiriburuak egunotan utzi digun irudia Aljeriak bizi duen krisiaren metafora aparta da. Aurki hila-bete bat beteko duen altxamenduak ezustean harrapatu

du boterea eta honek hauteskondeak deitu eta Abdelaziz Bouteflika presidentea bosgarren aldiz aurkezteari uko egin behar izan dio. Askoren haserreak, berriz, bertan dirau eta erregimenaren keinuak beranduegi iritsi direla ematen du. Gaitzak jota hilzorian den Bouteflika aitzakia zen erregimenarentzat boterean jarraitu ahal izateko eta orain aitzakia dute kalera atera diren milaka eta milaka matxinoek, sistema errotik aldatzea exijitzen baitute. Emakumeak begirada eusten dio poliziarri, jada beldurrik ez duela adierazi nahi balio bezala. Boterea beldur da orain. Ez dezala, arren, beldurra bortizkeriarekin ezkutatu. Dabid Lazkanoiturburu

{ analisia } **Aimar Etxeberria**

Eskozia, agertoki katalanerantz?

Hipotesian instalatu da Eskozia. Apenas dago ziurtasunik, dena da zalantza, dena aukera. Baliteke herrialdeak datozen asteotan ikustea Nicola Sturgeon lehen ministroaren adierazpenen bat bigarren independentzia erreferenduma ardatz hartuta, edota hila amaitzen denerako Europar Batasunetik (EB) at aurkitzea. Baina, era berean, baliteke denak bere horretan jarraitzea, ziurgabetasunetik argirako urratsik ez ematea. Bada, baina, zalapartarik, zerbait mugitzen ari dela erakusten duenik.

Eztabaida politikoaren erdigunera itzuli da bigarren independentzia erreferendumaren aukera, eta ugaritu egin dira Sturgeonen berehalako iragarpen baten inguruan espekulazio horiek ez datoz soilik lubakiaren alde eskoziarretik; britainiarrek eurek ere ahoz aho darabilte afera, interes propioen mesedetan bada ere. Eta kontua aspalditik datorren arren, fase berri batean sartu da Edinburgo eta Londresen arteko hitzezko gerra.

Izan daiteke Erresuma Batuak EBtik ateratzeko egin beharreko bidearen hasiera data –martxoak 29– gerturatzen ari delako, kontua da “The National” agerkari eskoziar independentistak iragarri duela dagoeneko Sturgeonen adie-

Partida hasterako karta guztiak mahai gainean jarri dituzte bi aldeek: bigarren kontsulta independentistaren saiakera berritua iragarri dute eskoziarrek; hura kosta ahala kosta ekidingo dutela aurreratuko dute, aldiz, britainiarrek.

razpena «datozen asteetan» iritsiko dela. Zentzu horretan, komeni da gogora ekartzea lehen ministro eskoziarrak deitu zuela jada independentziaren inguruko erreferendum berri batera. 2017ko martxoan izan zen; deia, baina, atzeratuta suertatu zen, nagusiki, bi elementuren ondorioz: Theresa Mayren Gobernuak kontsultari bide eman ez ziolako eta urte bereko ekainean, hauteskunde orokor britainiarretan, boto gainbehera garrantzitsua sufritu zuelako SNPk.

SNPren konferentzia

Espekulatu izan da Sturgeonek alderdiaren udaberriko konferentzia baliatu dezakeela iragarpen berri bat egiteko. Apiri-

laren amaieran egingo da hau –27tik 28ra– Edinburgon, eta ordurako ezaguna izango da Eskoziaren patua Brexitarren anabasaren baitan.

Iaioa da Sturgeon alderdiaren batzarrak erabiltzen iragarpen garrantzitsuak egiteko, azken konferentzia nazional-tan halakorik gertatu ez bada ere. Hala nola, eta halakorik ezean, batzarrean zentralitate osoa izango du bigarren independentzia erreferendumaren inguruko eztabaidak, izan ere, inoiz eman ez den bezala, alderdikideen arteko eztabaidara –eta ondorioz, bozketaraierekiko da balizko Eskozia independente batean erabili beharreko monetaren afera.

2014ko saiakeraren ahulgu- ne nagusietako bat izan zen

mugimendu independentistarentzat monetaren gaineko eztabaida. Libera esterlinarekin jarraitzea erabaki zuen orduan Alex Salmondren Gobernuak, baina George Osbornek, orduko Ogasun ministro britainiar- rarak, adierazpen sotil batekin zapuztu zuen eskoziarren asmoa: «Ez dugu gure moneta balizko Eskozia independente batekin partekatuko». Gobernu britainiarren erabakiarekin, libera esterlinaren gaineko kontrolik gabe geratzen zen Eskozia independentzia eskuratuz gero, hainbat eta hainbat eskoziar herrialdearen independentziaren aurka bozkatzera bultzatu zituen detailea.

Dirudienez, baina, beste apustu bat egingo du Sturgeon- en Gobernuak ustez iristear den bigarren saiakerari begira. Brexitarren osteko aroan sortutako Hazkunde Batzordearen gomendioei jarraiki, independentziarekin batera dibisa berri bat sortzea proposatuko die SNPk alderdikideei Edinburgo- ko konferentzian, alderdiaren alde aurrerakoiak eta mugimendu independentistak beso zabalik hartuko duten urratsa.

Eta Londresek, zer?

Esan dugu aurrez bigarren kontsulta independentista baten gaineko esanak lubakiaren alde bietatik datozela. Alde britainiarra, esaterako, eskoziarren helburu soberanistak zapuzten ahalegintzen ari da,

BBC kate publikoari egindako filtrazioak eta Gobernu kideen adierazpenak tartekatuz. Esaterako, Alderdi Kontserbadorearen Eskoziako filiala May baldintzatu nahian dabilela publikatu berri du kate publiko britainiarrak, kontsulta berri bat onartzeko baldintza bezala honen galdera eta data SNPren gain ez uztea ezarriz. Hori gutxi baltz, Mayren Exekutiboko iturriek egintzat eman dute jada, BBCren bidez, honek ez duela Sturgeonen eskakizun berririk onartuko. «Ezin dut inolako egoerarik aurreikusi zeinetan [Mayk] baietza eman dezakeenik», adierazi zuen Gobernu britainiarreko iturri batek kate publikoan.

Izan da, halaber, inolako birtartekari eta aho-bilorik gabe hitz egin duen ordezkari britainiarrik. Esaterako, Eskoziara bidaia egin beharrean izan da Jeremy Hunt Atzerri ministro britainiarra, urak baretze aldera. Zuzen hitz egin zuen honek Edinburgon, Mayk Sturgeonen eskaera berri bati uko egingo ote dion galdetuta. «Noski», erantzun zuen, Londres eskoziarrei bigarren aukera bat ematetik urrun dagoela argi utziz.

Egoera horren aurrean, jarraera kontraesankorrak azaleratu dira SNPren baitan. Alde batetik, alderdiaren lehendakariorde den Keith Brown mintzatu da gaiaren inguruan, Mayren Gobernuak



Nicola Sturgeon, Eskoziako lehen ministroa, autoak egiten dituzten Glasgowko fabrika batera egindako bisitan.

Jane BARLOW | AFP

erantzungo duenari erreparatu gabe bigarren kontsultak aurrera egitea proposatuz. Sturgeon berak, baina, uko egin dio Londresek espresuki baimendu gabeko erreferendum bat deitzeari. Hala, badirudi Kataluniako prozesuak azaleratu dituen zalantza eta eztabaida berak sorraraz daitezkeela etorkizun hurbilean Eskozian ere.

Bozetara 2021 ean

Izan daiteke guztia estrategia adostu baten inplementazioa, mugimendu independentista eskoziarri gustatuko litzaiokeen moduan, hori horrela dela esateko oinarri ez badago ere. Izan ere, SNPz haragoko independentismoan bada dezepzio sentazio bat, bide orri adostu baten hutsune bat. Asperdura puntu bat ere nabari dela

esan daiteke, alderdiaren zain egoteak eragiten duen antsietate dosi batekin.

Eskoziar independentismoak, baina, badu itxaropenerako motiborik ere. Bada ahotsik guztia 2021eko Holyroodeko hauteskundeetara jokatu behar dela esaten duenik –tartean Robin McAlpinena, orriotan elkarrizketatua izan den eskoziar estrategarena–. Horrekin, tiro bat bota eta bi txori hil ditzake mugimendu independentistak: batetik, Gobernu britainiarraren «orain ez da horretarako momentua» argudioa indargabetu dezake, baldin eta bigarren txoria hiltzea lortzen badu, hots, alderdi independentistek gehiengo lortzen badute Edinburgoko Parlamentuan.

Holyroodeko hauteskundeek, gainera, Britainia Handiak EBtik ateratzeko egin

beharreko bidearen amaierarekin kointzidituko luke –ondo bidean–, 2020ko abenduaren 31rako aurreikusia. Horrek bi agertoki argiren artean hautatzea ahalbidetuko lieke eskoziarrei, egungo ziurgabetasun aroan ez bezala. Britainiarren irteeraren data hil honen amaierara aurreratzeak, alegia, Brexit gogor batek, handitu baino ez luke egingo posizio unionistetatik independentistetara igaroko litzatekeen eskoziarren kopurua, 2016ko ekainean Brexitak irabazi zuenetik gaur egun bateko zein besteko argitaratu diren inkesta guztiek erakutsi duten moduan. Apustua bata edo bestea izan, beraz, badu eskoziar independentismoak zeri heldu, are gehiago Brexitaren prozesuak britainiarraren ezintasun guztiak azaleratu dituenean.



Oier Gorosabel - @Txikillana
Fisioterapeuta

Bortxaketa bikotearen barruan

Duela mende gutxira arte, normaltzat hartzen gizonak emakumeak bahitzea. Ez ziren arraroak bortxaz osaturiko bikoteak, eta neska konforme ez bazegoen makilakadaka “bezatzea”. Ostean, andre askok bizitza osoa etxean pasatuko zuten: senarrek derrigortuta, zein “kalean ibiltzea gaizki ikusia zegoelako” auto-giltzaperatuta. Oraindik iraganean bizi den jende basatia dagoen arren, zorionez garaiak aurrera doaz eta gaur egun onartuta dago harreman batean indarkeriak ez duela lekurik izan behar. Aldebiko onespren barik eginiko bikote gutxi daude, eta banaketak ugariagoak eta adeitsuagoak izaten dira. Halere, badaude hain argi ez dauden eremu ilunak: ongi antzean konpontzen diren bikoteetan, noraino da derrigorezkoa *deberes conyugales* edo “bikote-eginbehar” horiek betetzea? Hau da: sexu harremanetarako bien onspena behar al da?


Gauza jakina da, denborak aurrera egin ahala, bikoteen hasierako grina eta maitasuna aldatuz doala. Gordin esanda: elkarrekin larrutan egiteko gogo gutxiago izaten dutela. Fenomeno hori guztiz naturala dela esan dezakegu; baina horren aurreko jokabidea, ohiturak edo moralak baldintzatzen du. Euskal Herrian historikoki nagusi izan diren arabiar jatorriko erlijioen soluzioa emakumea lotzea izan da. Arau idatziek eta ohitura ez-idatziek andrazkoek jarraitu beharreko portarea egokia argi zehaztu izan dute: emaztea, etxean (behin ezkonduakoa, kanpoko lana utzi behar zuten); familiaren zaintzara bideratuta; eta, sexuari dagokionez, monogamoa (gizonen kasuan ez bezala: hauei ezkontzatik kanpoko maitaleak onartu izan zaizkie). Sexu eremuari zehatzago erreparatuz, emaztea senarraren

zerbitzura zegoen: gizonak agintzen zuen zer eta noiz egin, eta emakumeak onartu beharra zuen. Hain zuzen ere, kode idatziek sexu harremanok onartzea (“bikote-eginbeharrak” eufemismoarekin) derrigorrezkotzat hartu izan dituzte; eta haien falta dibortziarako baleko argudioa da. Ikuspegi hori, gaur egunean ere, oso hedatuta dago gure gizartean. Esango nuke jende nagusi gehienak ontzat ematen duela senarrak nahi duen bakoitzean larrutan egin behar hori; eta, gazteen artean, ez direla gutxi gauza bera uste dutenak. Baina uste horrek talka egiten du gaur egun garatzen ari den ikuspegiarekin, eta bikotearen barruko bortxaketen tabua azaleratzen du: oraindik legearen eta erlijioaren babesa eta bedeinkapena duena.

Zein da jokabide egokia? Gauza bat behintzat argi dago: jada ez gaude Erdi Aroan, eta sexu harremanek alde biko adostasuna behar dute. Hor-tik aurrera, zentzua erabili beharko genuke: norbaitek ez badu nahi due-

na etxean aurkitzen, ezin zaio ukatu kanpoan bilatzea. Ondorioz, fideltasunaren totema (oso Erdi Arokoa hori ere), automatikoki erortzen da. Baina hori ez da berria: ezkutuan betidanik gertatu izan baita, gizonetzkoen kasuan ageriagoan emakumezkoetan baino (prostituzioaren bezero nagusiak ez dira gaztetxoak edo mutilzaharrak/ neskazaharrak, baizik eta gizon ezkonduak). Halere, hori baino, niri elbarri geratu diren pertsonen kasua eredugarriagoa iruditzen zait: osasun arazoek sexu harremana oztopatzen dutenean, modu naturalean etortzen da bikotea “ireki” beharra; ez da arraroa izaten konpromisoa mantentzea (seme-alabak, hipotekak, zainketa...), baina bietako batek kanpoan sexu harremanak bilatzea; hori onartzen ez duenak ez du bihotzik, edo hipokrita hutsa da. Bada, ez dago elbarria izan beharrik: gogo falta nahikoa arrazoi baita gauza bera egiteko! •

www.abante.eus



Bikoteen hasierako grina eta maitasuna aldatuz doaz.

{ asteari zeharka begira } **Pello Otxandiano**

Sakonerera handiko mugimenduak

Egin ditugu lehen kilometroak maiatzaren 28an bukatuko den hauteskunde maratoian. Bi notizia nagusik astindu dute panorama azken astean: EH Bildu eta ERCren arteko aliantza politikoak eta UPNk Ciudadanosekin batera iragarri duen hauteskundeetarako plataformaren aurkezpenak. Bata zein bestea apirilaren 28ari begirako mugimendu taktikoak dira, emaitzak hobetzeko berehalako interesaren ondorio. Alabaina, sakonagoko urratsak ere badira eta bide berrien hasiera iragar dezakete.

ERC eta EH Bilduren arteko aliantza notizia ona da ez bairik gabe, bi nazioen arteko elkarlan dinamikaren atal bati hasiera ematen dion neurrian. Estatuaren krisi-arohan “bi herri borroka bat” lema egikaritzea faktore determinantea izan daiteke. Urriak 1eko erreferenduma esperimentu ona izan zen Espainia zertarako gai den frogatzeko. Nork bere aldetik egin dugu orain arte, bide ezberdinak hartuta, eta ez gara gai izan gure herriak autodeterminatzeko, erabakitze eskubidea instituzionalizatzeko modu efektiboan. Bi prozesuen arteko sintonizazioak bide berri baten aukera irekitzen du. Elkarlanak edo sintonizazioak plano ezberdinetakoa behar du, eta horietako bat da elektoralak. “Orain errepublikak” Europako hauteskundeetarako aliantzaren arrastoari jarraitzen dio ERC eta EH Bilduren arteko honek, interlokuzio bateratu bat sortuz Estatu espainolaren aurrean. Interlokuzio indartsu bat erabakigarria izan daitekeena.

UPN eta Ciudadanosen arteko aliantza elektoralak ere sakoneko urratsa da. UPNren urgentzia elektoralak dago operazio horren atzetan. Batetik, botere instituzionala berreskuratzeko duen egarriaren erakusle da. Bestetik, bere burua nahi baino ahulago ikusten duen seinale, ez bailuke aliantza hau egingo korrantea bere alde sumatuko balu. Edozein kasutan, sakonera handiko mugimendua da, Nafarroako joko-zelai politikoa birkonfiguratzeko duena neurri batean: nafar foralis-

moaren ustezko defendatzaile sutsuenak Espainia zentralistenaren aldekoekin bat eginda, UPNren hegemonia ardaztu duen narratiba pitzatzen duen erabakia.

Bide luzea gelditzen da aurretik eta edozer gerta liteke. Inkestek diotenaren arabera PSOE goranzko jorian dago hauteskunde deialdiaren ondotik, eta hirukote autoritarioari aurre egiteko alternatiba baliagarri gisa perfilatu da. Ikusteke dago zein gailenduko den, oldarraldi erreazionarioa edo erantzun antiautoritarioa. Gauza ziurra da polarizazio horrek aginduko duela eta zaila izango dela besteontzat burua ateratzea.

Anartean, Martxoaren 8a arrakasta izugarria izan da. Feminismoa potentzial emantzipatzaile handia duen mugimendua da. Olatu feminista hazi egin da iaztik hona eta bide berriak irekitzen ari da. Modan dago, bai, baina hortik haratago, erro sendoak dituen mugimendua da.

Krisi-aro honetan bi emari emozional nahasten dira etengabe: haserrea eta beldurra. Promesa liberalak erori dira, bizi-espektatibak zapuztu dira eta horrek haserrea sortzen du. Haserrea mobilizatzailea izan daiteke, hautu emantzipatzaileen erregaia. Baina, aldi berean, etorkizuna inoiz baino ziurgabeagoa da eta asko dugu galtzeko. Horrek beldurra eragiten du, eta beldurra paralizatzailea da eta jarrera kontserbadoreak sortzen ditu.

Pultsio emantzipatzaile sendoa duten gizarte mugimenduak ditugu Euskal Herrian, feminismoa eta pentsionistak abangoardian –eta kasu gurean ere lur hartzen ari den larrialdi klimatikoaren ingurukoarekin–. Mugimendu erradikalak dira, sakoneko aldaketak eskatzen dituztenak, burujabetza prozesua edukiz bete dezaketenak euskal eskalan artikulatzen badira.

Horra datozen garaietako erronka nagusietako bat: pultsio emantzipatzaile hori eta erabakitze eskubidearen instituzionalizazio prozesua –katalanekin bat eginik– uztartzea. •

Pultsio emantzipatzaile sendoa duten gizarte mugimenduak ditugu Euskal Herrian, feminismoa eta pentsionistak abangoardian

BALTISTAN FUNDAZIOA

Hushe ibarreko seiehun neskatila eskolatzeko kanpaina, amaitzear

Mendian eta menditik bizi dira. Besteak beste, beren mendietara joaten direnak zaintzen dituzte, eta joaten diren horietako zenbaitek bertan bizi direnek ere laguntza merezi dutela pentsatu zuten behinola. Hainbat urte igarota, Baltistan Fundazioa nazioarteko garapenerako gobernu kanpoko erakundeak Hushe ibarraren garapena errazteko bitarteko bihurtu zituen Euskal Herriaren eta inguru hartako bizilagunen arteko aspaldiko harremanak.

Hushe ibarra Baltistan herrialdean dago, Pakistanen Administraziopeko Kaxmirren. Baltistan Fundazioak Karako-

 **JENDARTEA** / Xabier Izaga Gonzalez

Baltistan Fundazioak mendiko balioak ditu oinarri, eta mendiko jendearen garapena sustatzen du. Hushe ibarreko umeak eskolatzen ditu, neskatilak bereziki; goi mailako ikasketak egiteko bekak ematen ditu, eta han berrikuntza zentro bat abiatzeko, Baltistango lagun bik master bat egingo dute Mondragon Unibertsitatean.

rum mendilerroaren magaleko komunitate horietan bizi diren lagunei prestakuntza eta azpiegiturak eskaintzen dizkie. Laguntzen duen garapen eredu gizon eta emakumeentzat berdintasunezkoa da, iraunkorra eta propioa, bertakoek sustatu eta kudeatua. Horregatik, zere-

Hushe ibarra,
Karakorum mendilerro
ikaragarri eta ederraren
magalean. BALTISTAN
FUNDAZIOA

gin hori aurrera eramateaz arduratzen den erakunde Hushe ibarrekoa eta bertako lagunak osatua da: Felix Iñurrategi Foundation Baltistan Machulu.

MENDIKO BALIOAK

Irati Santxo Baltistan Fundazioako teknikariarekin hitz egin

du GAUR8k eta, besteak beste, erakunde horren izenaren zergatia azaldu du: «Iñurrategi anaiak eta Euskal Herriko beste mendizale batzuk Pakistan aldera joaten ziren. Hango xerpekin sortutako harremanen inguruan sortu zen gobernu kanpoko erakunde hau. Felix Iñurrategi hil zenean, haren izena jarri zioten hango mendi eskolari, ondoren fundazioa izango zenari, hain zuzen». Euskal mendizaleen eta Hushe ibarreko lagunak arteko harremanek mendi mundua gainditu zuten, eta eskualde hark garatzeko aukera gehiago izan zitzan lan egin zezaketela pentsatu zuten, Baltistan Fundazioaren bidez, hain zuzen.

Mendiarekin estu lotutako fundazioa da, beraz, eta mendizaletasunaren balioak bere egin dituena. Hauxe da euren leloa: «Elkartasunean, mendia bide». «Mendian sortu zen», dio Iratik, «Euskal Herrian beti egon da mendizaletasuna eta Iñurrategi anaien, Jon Lazkanoren, Juanjo San Sebastianen eta beste askoren eta xerpen artean sortu ziren harremanak naturan eta elkartasunean oinarritutakoak dira. Hartara, mendiaren inguruko filosofiak gidatuta sortu zen gobernu kanpoko erakunde hau, menditik eta mendiarentzat, zeren guk Karakorum mendilerroaren parte den inguruan lan egin dugu, mendiko lagunentzat, mendian eta menditik bizi diren horientzat».


Fundazioaren zutabeetako bat giza prestakuntza eta prestakuntza profesionala da, prestakuntza herritarren garapen sozioekonomikoa lortzeko gakoetako bat eta ibarreko emakumeak ahalduntzeko tresna bat dela uste baitute. Ez da jorratzen duten arlo bakarra; osasun arloan ere, esate batera-





Giza prestakuntza eta prestakuntza profesionala Hushe ibarreko herritarren garapen sozioekonomikoa lortzeko gakoetako bat eta hango emakumeak ahalduzko tresna bat da, gobernu kanpoko erakundearen ustez.

BALTISTAN FUNDAZIOA



ko, zenbait ekimen egin izan baitituzte. 2008an hasi ziren Baltistango neskek eskolatzen. Lehenengo, baina, sentsibilizazio kanpaina bat egin zuten.

HEZKUNTZA, FUNTSEZKOA

Iratik dioenez, neskek eskolara joatea han ez zuen zentzurik, «neskek umeak izan eta etxeaz arduratuko direnez... Mentalitate hori zeukaten, eta guk aldarrikatzen dugu ume denak egoera berdinean joan behar dutela eskolara. Hango familiek daukaten apurra mutilen prestakuntzan inbertitzen dutela ikusita, sentsibilizazio kanpaina hura egin genuen, bai mutilentzako bai neskentzako hezkuntzaren garrantzia azaltzeko. Eta hango familiak horren kontzientzia hartzen joan ahala, proiektua abian jarri genuen, nesken hezkuntzaren kostuak guk ordaintzeko konpromisoarekin». Akordio bat lortuta, proiektua garatzen hasi ziren, familiek baliabide eskasak dituztenez, mutilen hezkuntzan inbertitzeko eta

Fundazioak nesken hezkuntzan inbertitzeko ardura hartuta, denak eskolara joan ahal izateko helburuarekin.

Datu batzuk eskaini ditu Iratik, fundazioaren lanaren fruituaren erakusgarri. 2013an, gutxi gorabehera 270 neska joaten ziren eskoletara, eta gaur egun 700 baino gehiago. Beste alde batetik, neskek eskolara joatea garrantzitsu jotzen ez zuten familien arteko elkarri-

ketak egun gisa honetakoak direla dio: «zure neskatila zein eskolara doa?» edo «nik eskolaz aldatu dut», eta ez eskolara joan behar duten edo ez. Gutxi gorabehera hamar urteko bilakabidea izan da hori.

Kontzientziazio kanpainaren ostean, bonu kanpainei ekin zieten. 2019koa martxo amaiera arte luzatu da, Hushe martxoan hasten baita ikasturtea, negu gorrian, baina

aurten, elurteak eta tenperatura baxuak tarteko, hil amaiera arte ez baita hasiko. «Kanpainaren azken txanpan gaude, beraz», dio Iratik. Helburua 600 bonu saltzea da, 600 neska eskolatzeko, eta dagoeneko 500 ingurura iritsi dira. 50 euroko bonu batekin neskatila baten urte osoko gastuak berdintzen dituzte.

Alberto Iñurrategik ere parte hartu du Baltistan Fundazioa-

ren bonu kanpaina. Joan den otsailean «Porrotaren alde» bere diaporama eraman zuen Alegiara, hitzaldi bat eskaini eta urteroko bonu kanpainaren berri eman zuen, bertako Mendi Asanbladak sustatutako elkarlanerako ekimen baten barruan.

2018an 764 neska joan ziren eskolara; 2017an, 703, eta, 2016an, 563 neska.

PROIEKTU BERRIA

Bonu kanpainetan Mondragon Unibertsitatearen laguntza ere badute, baina hori ez da erakunde bien arteko lankidetzak bakarra, Iratik dioenez. «Hainbat gauza egiten ditugu Mondragon Unibertsitatearekin, urtero zerbait berria». Hartara, neskek eskolatzen lagundu zuten, gero goi mailako ikasketak egiteko bekak ematen hasi ziren, baina gero gazte horiek arazo larri batekin topo egiten dutela ikusi dute. Ibarreko jendea unibertsitate-irteten hasi da, eta badaude bertan prestatutako profesio-

ZORIONEZ, GATAZKAK ERE AHAZTUAK

Azkenaldion tentsioak gora egin du Kaxmir eskualdean. Joan den otsailean talde jihadistak baten erasoaren ondoren, Pakistan aldeko Kaxmirren omen dagoen kanpamentu jihadistak bonbardatu zuen Indiak. Pakistanen eta Indiaren arteko gatazka zaharraren azken kapitulua izan da. Gatazka horrek Husheko bizilagunei noraino eragiten dien galdetu diogu Iratiri. «Baltistan probintzia bat da, eta guk bertako Hushe bailaran lan egiten dugu, hemengo mendizaleen eta haien arteko harremanak sortu ziren lekuan. Bailara zortzi herrik osatzen dute,

Pakistanen iparraldean, Indiaren eta Txinaren mugetatik oso hurbil, 3.000 eta 4.000 metro bitarteko altueran. Herri bakoitza altuera batean dago. Eta ez da inguru gatazkatsua. Estatuaren arteko tirabirak nabarmenak dira, baina, horri dagokionez, ez dago arazorik. Pakistanek bere lurraldetzat du Baltistan, baina guztiz ahaztuta dauka. Esate baterako, 80ko hamarkadatik iaz arte ez dute eroldarik ere egin. Han ez daukate boto eskubiderik. Estatua ez da hangoez arduratzen. Han ez daude ez Nazio Batuak ez inor, guk egiten dugu lan; bestela, ez dago inor han goian».



nalak: abokatuak, medikuak, injineruak... baina lanik gabe, edo lanerako oso aukera eskasa dutela. Beraz, azken urteotan proiektu baten beharra sumatu dute, berrikuntza zentro bat abiatzea, hain zuzen. Horretarako, Mondragon Unibertsitatea zentroko metodologia definitzeaz arduratuko da, hezkuntza esparrutik, eta Baltistan Fundazioa gainerakoaz.

Bultzatzen ari diren berrikuntza zentro horrekin Husheko komunitateei euren proiektuak aurrera ateratzeko aukera bat eman nahi diete. «Han familia asko mendi espedizioetatik bizi izan dira eta berez, beharraz, ekintzaileak dira, eta konturatu gara komunitatean beharrak bultzatuta ekintzailetasuna oso garatuta dagoela. Orduan, uste dugu berrikuntza zentro honen bitartez, formakuntza emanda eta baliabide batzuk eskainita, aukera pila bat izango dituztela neskek eta mutilak ekintzai-

letasun hori gauzatzeko. Hori da helburua».

LANKIDETZA, EZ KARITATEA

Herriak garatzeko laguntza eta baliabideak eman beharra dagoela uste dute, baina jasotzen dituztenek egin dezaten, eta horretarako hezkuntza funtsezkoa da. Hala uste du Iratik: «Hori da Baltistan Fundazioak aldarrikatzen duena. Guk egiten dugun lana lankidetzaren arlokoa da, ez karitatekoa. Gure lana Felix Baltistan hango bulegoarekin egiten dugu, eta

2019ko kanpainaren helburua martxo bukaera arte 600 bonu saltzea da. Dagoeneko 500era iritsi dira. 50 euroko bonu batekin neskatila baten urte osoko gastuak berdintzen dituzte

«Gure helburua desagertzea da, Baltistan Fundazioa urte batzuk barru ez existitzea. Horrek esan nahiko du eurak bakarrik gaur arte dituzten beharrak asetzeko kapaz direla»

Ezkerrean, Irati Santxo, Baltistan Fundazioako teknikaria. Eskuinean, Basarat Ali, Mondragon Unibertsitateko Oñatiko campusean master bat egiten ari dena.
BALTISTAN FUNDAZIOA



erakunde hori hango lagunak osatzen dute. Haien bidez ikusten dugu zeintzuk diren hango beharrak, eta gure helburua erremintak ematea da, eurak aurrera ateratzeko gauza izatea. Hau da, gure helburua fundazioa desagertzea da, Baltistan Fundazioa urte batzuk barru ez existitzea. Horrek esan nahiko du eurak bakarrik dituzten beharrak asetzeko kapaz direla. Gu laguntza bat, edo kontaktu bat izan gaitzke, baina euren bizi-tza ez da gure laguntzaren menpe egongo, eta euren kabuz funtzionatuko dute. Buruan helburu hori edukita, zentro horrek epe luzerako baliabide pilo bat eman ahal du».

La proiektu denek instituzioen dirulaguntza izaten dute, aldundien eta udalena, baina fundazioak dirua ematen duten bazkideak ere baditu, eta zenbait enpresak ere egiten dituzte euren ekarpenak, hala nola Maier Kooperatibak.

Berrikuntza zentroa abiatzeko ardura izango duen lagun bat Oñatin dago, eta laster, hil honetan bertan, bi izatea espero dute, mutil bat eta neska bat. Biok master bat egingo dute Mondragon Unibertsitateak emandako beken eta Gipuzkoako Aldundiaren laguntzen bitartez, eta datorren urtean itzuliko dira Baltistanera.

Basarat Ali Mondragon Unibertsitateko Oñatiko campusean da joan den irailaz gero. Aspaldi hasi zen Felix Fundationen lanean, eta egun gobernu kanpoko erakundearen kolaboratzailea da. Eskolak ematen ditu hango ikastetxe batean. Euskal Herrian maste-rra bukatzean, sorterrira itzuliko da, berrikuntza zentroan gutxienez bi urtez lan egiteko konpromisoarekin. Zentroa abiatzeko ardura izango du, baina master bera egitera Oñatira iristear den beste lagun batekin partekatuko du ardura hori, Shaziarekin, hain zuzen.

EUSKAL HERRIAREN ETA BALTISTANEN ARTEKO HARREMANAK, ELKARTASUNAK AREAGOTUTAKO HARREMANEN ISTORIOA

Baltistan urruti samar dago, India eta Txinako mugen artean, Pakistango Kaxmirren. Ez da Euskal Herritik urrunen dagoen lekua, baina bai munduko altuenetakoa, Karakorum mendilerroan baitago, Himalaiarekin batera mendi multzo altuena. Inguru gogorra bezain ederra, beraz, Baltistan eta bertako Hushe ibarra.

Eskualde hartan dabil egunotan Alex Txikon mendizale arratiarra, K2 mendia lehen aldiz neguan igotzeko ahaleginean. Joan den astean, ordea, K2ko kanpamendu nagusitik Nanga Parbat aldera egin zuen, joan den otsailaren 24tik desagerturik zeuden bi mendizale erreskatatzeko lanetan parte hartzeko. Eta mendizale

bizkaitarraren taldeak aurkitu ere egin zituen Daniele Nardi eta Tom Ballard, hilda baina.

Zer dela-eta Txikonen ibilien berri Baltistan Fundazioa gai duen erreportaje batean? Alde batetik, Txikonek ere gobernu kanpoko erakunde horren bonu kanpainan lagundu du, eta, bestetik, inguru bereko beste erreskate operazio batek eragin handia izan zuen fundazioaren sorreran.

Orain dela hogeitau urte, Felix eta Alberto Inurrategik, Jose Carlos Tamayok eta Jon Lazkanok osatutako espedizioak larriki zauritutako mendizale hegoamerikar bat aurkitu zuen eta espedizio kideek handik



Goian, Alex Txikon, Baltistan Fundazioaren kanpainarekin bat egiten. Lerroon azpian, Felix Inurrategi Foundation erakundearen kartela. BALTISTAN FUNDAZIOA

irteten lagundu zioten. Erreskate hura zela-eta, Gipuzkoako Foru Aldundiak saria eman zien mendizale haiei. Eurek, Green Mountain Climbing School izeneko mendi eskolari eman zioten sariak berekin zeukan diru guztia. Mendi eskola hura Matxuluko (Hushe ibarra) biztanleek sortu zuten 1997an, eskualdeko zamaketari eta eskalatzaileri alpinismoko teknikak irakasteko eta hobetzen laguntzeko, hara joaten ziren mendizaleei gero eta zerbitzu hobea emateko.

Hurrengo urtean, 2000n, Euskal Herriarentzat eta Karakorum urruneko inguruetako lagunentzat kolpe latza etorri zen: Felix Inurrategi Gasherbrum II mendian hil zen. Matxuluko lagunek mendi eskolari izena aldatu eta Felix Inurrategi Climbing School Machulo jarri zioten, Felixen omenez. Aldi berean, Felixen zenbait lagunek, berarekin maiz hitz egindako amets bat gauatzeko unea zela pentsatu zuten, inguru gogor eta eder hartako herritarren bizi-baldintzak hobetzen saiatzeko erakunde bat sortzeko unea, alegia.

Edonola ere, Euskal Herriaren eta Baltistanen arteko hartu-emana aspaldikoagoa da. 80ko hamarkadatik euskal mendizale asko joan izan dira inguru horretara, hango mendi ikaragarrietan zehar ibili dira, han bizi direnen laguntza jaso eta haiekiko harreman sendoak ere egin dituzte. «Hala hasi zen adiskidetzeara, eta gutxika-gutxika herrien eta pertsonen arteko lankidetzaz nahiz laguntzaz haratagoko harreman bihurtu da», dio Baltistan Fundazioak bere web orrian. Irati Santxok ere ez du zalantzarik: «Gure mendizaleak urteetan eta urteetan zaindu dituzte, eta orain egiten duguna zaintza hori itzultzeko modu bat ere bada».



Greba deialdiko irakaspenak

**Nekane
Zinkunegi
Barandiaran**

Enplegu, zaintza eta hezkuntza arloetako emakume*-ok eta pentsiodunak greba egitera deituta geunden aurtengo Martxoaren 8an. Izartxo eta guztiko rol horretan beren burua ikusten ez zuten bati baino gehiagori azalpenak eman behar izan dizkiogu. Inguruan, izartxo barruan ustez eroso sentitzen garenon artean ere izan ditugu eztabaidak.

Etkez etxeko zaintza zerbitzuko edo eguneko zentroko langileek greba egiterik izan ez dutelako, haien zaintzapeko adinekoak beste emakumeren baten kargupean utzi beharrak sortzen zien

kontraesanagatik. Haurrei bularra ematea zerbitzu minimotzat hartu duten amen erabakiaz ere aritu gara. Greba deialdia nahi bezala ulertu eta, arratseko mobilizazioan parte hartu arren, afaltzera tabernara joandako emakume talderen batek ere eragin du zeresana.

Akaso, ordea, grebaren arrakastaren araberako balorazioen ordez, grebari esker izandako eztabaiden araberako balorazioak egin beharko genituzke, tokian toki. Gurean, hainbat belaunalditako emakumeak mural feminista margotzera zein biharamuneko afarira

batzeko balio izan du. Grebaren zergatiaz hitz egiteko, emakumeok lan egiteari utziz gero, mundua geratzen dela ohartzeko.

Egitekoak ere utzi ditu hurrengo baterako. Greba deialdia gizarteratzen lan gehiago egin beharko genukeela ulertu dugu. Lan prekarioegiak dituztelako egun bateko soldata galdu ezin duten kideengatik ere greba egiteko ardura dugula ikasi dugu. Mobilizazioa eta ospakizuna batzen asmatu behar dugula, eta zerbait antolatzeko zain dauden horiek antolaketara aktibatzeke erronka ezarri diogu geure buruari. •

Espainia

Joxean Agirre

Behinola, Arabako Lapueblako upategi batean ardoak probatu ondoren gain batera eramán gintuen bertako nagusiak eta, Fuenmayorko mahastiak seinalatzen zituela, kontatu zigun ez dakit zein aro geologikotan, orain milioi batzuk urte, Afrikatik berezitako lur zati bat etorri zela eta han bertan, Ebro ibaiaren mugan, egin zuela talka Europarekin. «Horiek Afrikako lurra dira. Hauek Europakoak», esan zuen. Arabako ardoak hobeak zirela esan nahi izan zuen. Teoria interesatuegia zela pentsatuz, etxeratzean Googlen begiratu eta antzeko

zerbait defendatzen zuen Errioxako Unibertsitateko geologo batek.

Orain hilabete batzuk irakurri nuen Ignacio Sanchez-Cuencaren “La desfachatez intelectual”, espainiar idazleek politikaren aurrean (Kataluniako auzian bereziki) duten jarrera aztertzen duen liburua; eta horretan ere Espainia ezberdina dela erakusten du, Europako prentsan zutabegile eta iritzi-emaileak arlo ezberdinetako adituak diren bitartean, Espainian idazle eta letretako jendea baita. Oraindik orain irakurri dut Jorge del Molinoren “La España vacía”, penintsula barrualdeko desertizazio demo-

grafikoa aztertzen duen liburu bikaina. Ondorioa bera da, klima eta demografia aldetik Espainiak ez dirudi Europa.

Espainiako justiziaren funtzionamendua ez dut libururik irakurri, baina ez da zaila ondorioak ateratzen. Azken hamar urtean 40 aldiz kondenatu du Estraburgok Espainia eta 70 aldiz Europako Kontseiluaren parte denetik.

Geologia, klima edo populazioaren banaketa aldatzen zailak dira, baina hori bezainbat kostatuko zaigu Espainiako justiziaren egituraren itsatsita gelditu ziren eta dauden frankista togadunak begi bistatik galtzen. •



Unai
GAZTELUMENDI

iRRITZIA:

Azken asteetan sute larriak izan dira Nafarroan



> Berri Txarrak eta «Gazte doinhuak»



Aritz LOIOLA / FOKU

Euskal Herriko gazteen borrokari lotutako doinuak berreskuratu eta bildu nahi ditu Ernaik "Gazte doinhua" egitasmoan. Lan horretan konplize bihurtu da Berri Txarrak taldea, bere agur biran 2002.



urteko Elorrioko Topagunearen soinu banda izan zen "Bisai berriak" abestia joz.

Hamazazpi urte igaro dira Elorrioko Gazte Topagunea egin zenetik. Orduko hartan Berri Txarrak taldeak jarri zion

musika banda aipatutako abestiarekin. Orain, Lemoako Gazte Topagunearen atarian, halako ekimenei musika jarri dioten melodiak biltzen dabil Ernai, gazteen borrokari doinua jarri dioten kantuak berreskuratuz.

Esanda bezala, lan honetan konplize izan du Berri Txarrak; izan ere, pasa den igandean Durangoko Plateruenan eskainitako kontzertuan "Bisai berriak" abestia jo zuen. Izar Mendiguren Cosgaya arabarra bertan zen, unea grabatu eta Twitterren zabaldu du @itzulipurdika kontuan.

Joan den astean abiatu zuen "Gazte doinhua" ekimena Ernaik eta sare sozialak lagun, 1999an Euskal Herria zeharkatu zuen "Gazte Abialdia" ekimenaren soinu banda zabaldu zuen lehenengo. Eibarko Su eta Gar taldeak egin zuen "Gazteria abian", hain zuzen.

Hedatutako bigarren abestia 2000. urtean Kanbon ospatu zen Gazte Topagunearen abestia izan zen, Etzakit taldearen "Gurea". Haritik tiraka segituko du ekimenak.



> Euskal Rock Erradikala

Ba bai, Valentziako Alderdi Popularreko presidentea, Isabel Bonig, Euskal Rock Erradikalaren zale amorratua da. Valentziako telebista publikoan egindako elkarrizketa batean agertu ditu bere musika zaletasunak. Aurkezleak, gainera, proba egin nahi izan du Bonigen ezagutza norainokoa zen jakiteko. Abestiak jarri eta egileak asmatu be-



har izan ditu eta, askoren ezustetako, PPren hautagaiak azkar asko igarri ditu Kortaturen, Eskorbutoaren edota La Polla Recordsen abestiak. Zeresana eman du elkarrizketak. Fermin Muguruza bera harrিতuta eta haserre agertu da; «zer da kaka hau?». Estatu espainolean bere lanak sufritzen duen zentsura eta boikota ekarri ditu gogora.



> Musikarekin oharkabeen pasatzen direnak

Musikak sekulako garrantzia dauka sozializazioan eta uste baino pisu handiagoa hezkuntzan. Ohituretan eta emozioetan eragiteko gaitasuna dauka musikak, bere bitartez ideiak pertsonaren barru barruraino sar daitezkeelako.

«Bai, nik kozinatuko dut. Bai, nik garbituko dut. Zu izango zara nagusia eta errespetatuko zaitut». «Emakume eder-eder bat nahi dut, ezer esango ez di-



dana, nahiz eta ez gustatu nik egiten dudana. Isilik egongo den emakume bat». «Jo ezazu, kolpa ezazu, ez duela ezer egiten. Beldurrik gabe, begira, gustatu egiten zaio-eta».

Horrela idatzita bortitzak egiten diren mezuak maiz oharkabeen pasatzen dira abesti batean. Eta dantzatu ere lasai egiten ditugu. Horri buruzko bi bideo oso interesgarria zabaldu dira sarean.

> Elikagai biluziak

Zeelanda Berrian “Food in the nude” izeneko kanpaina jarri dute martxan, elikagai biluziak aldarrikatuz eta supermerkatuetan ematen den plastikoen gehiegizko eta alferrikako erabileraren kontra eginez. Supermerkatuetan produktu freskoak biltzeko erabiltzen den plastikoen kontrako ekimena da.

Bertako elikagaien ekoizle elkarte batek bultzatu du kanpaina. Hartara, 2025. urterako denda guztietan erabiltzen di-



ren bilgarriak osotasunean bererabilgarriak izateko konpromisoa hartu dute, birziklatuak edo konpostagarriak.

Kanpainak bultzatutako neurriak, ekologikoak izateaz gain, errentagarriak ere gertatu dira. Izan ere, “NZ Herald” egunkariak jakinarazi duenez, kanpaina martxan denetik zenbait barazki eta frutaren salmentak hirukoiztu egin dira supermerkatuetan. Euskal Herrian ere asko dira antzeko neurriak eskatzen dituztenak.



> «Itsusiegia bortxatua izateko»

«Maskulinoegia, itsusia eta ez erakargarria bortxatua izateko». Argudio horiek erabili ditu Italiako epaitegi batek neska bat bortxatu izanaz akusatutako bi gazte aske uzteko. Argudio horiek herrialdea haserretu eta sutu dute.

Italiako Justizia Ministerioak aipatu epaia berrikusi egingo duela iragarri du. Aurretik aipa-



tu bi gazteak bost eta hiru urteko kartzela zigorrera kondenatu zituzten 22 urteko emakumea drogatuta eta bortxatu izana leporatuta. Epaia horri helegitea jarri zioten eta helegite epaitegiak bertan behera utzi du orain zigorra.

Italiako mugimendu feminista dituta milaka herritarrek egin dute protesta.



Gorka Etxebarria Dueñas
Historialaria

Tulipanak eta udalak

osasuna / hiriarren lo(r)aldia / harremanak

Gau batez, lapur batzuek hesiaren gainetik jauzi egin zuten eta Charles d'Éclusen lorategi botanikoan sartu ziren. Leideneko Unibertsitateko irakasle hark Otomandar Inperiotik iritsitako lore berezi batzuk hazten baitzituen bertan: tulipanak. Ordura arte unibertsitatean ezkutatu eta egon ziren lore eder haiek modako objektu bihurtu ziren XVII. mendearen hasieran. Merkatari eta burgesen artean, tulipanik ederrenak izatea harrotasun eta aberastasun sinbolo bihurtu zen. Urte gutxiko epean, tulipanen erraboielen prezioak gora eta gora egin zuen. Obsesio bihurtu ziren tulipanak, elkarrizketa guztietan presente. Harik eta, 1637ko otsailean, burbuilak eztanda egin zuen arte.

“Tulipmania” deitu zena, lehen finantza krisia bezala da ezaguna. Herbehereetako Urrezko Aroan gertatu zen. Ondorengo finantza krisiak ere garai optimisten ondoren etorri dira. XIX. mendearen bukaerako krisia inperialismoaren harrotasun burges eta arrazistaren baitan gertatu zen. 1929ko *crash* izugarria, 20ko Hamarkada Zoriontsuaren bukaeran. 2008ko krisia, digitalizazioaren garai yuppie eta postmodernoan. Historian falta genuena, garai triste batean prozesu espekulatiboa zen...

Azken gainbehera ekonomikoaren ostean, ez gaude gehienok positibo. Errepikatu da, behin eta berriro, oraingo haurren bizi maila eta lan baldintzak, beren guraso eta aitona-amonek baino eskasagoak izango direla. Historiak orain joera hori balu bezala. Ezer egin ahalko ez balitz bezala. Baina historia ez da anonimoa. Berez, ez doa inora. Batera edo bestera jotzen badi, batzuen edo besteen interesak gailentzen direlako da. Po-

pulazioaren gehiengoaren egoera okertu egingo dela sinetsarazi nahi digutenak, orain etxebizitzaren burbuila espekulatibo berri batean sartuta gauzkate. Eros ezazu etxe bat! Gero pobregoa izango zara eta ezingo duzu ordaindu! Aldi berean, turismoaren eta gentrifikazioaren apologia da nagusi erakunde eta komunikabide nagusietan. Fenomeno espekulatiboari ezikusiena egiten zaio eta guztiontzako aukera ekonomiko bailiren saltzen dizkigute bai gentrifikazioa eta bai turismoa.

Bi prozesu horiek sakon gertatu diren hirietan, aldiz, argi ikusi da zeintzuk diren ondorioak. Batetik, alokairuen eta etxebizitzaren prezioaren igoera, eta, beraz, familiek soldaten zati gero eta handiagoa erabiltzea bizileku duin bat izateko. Bestetik, jabetzak inbertsio funtsen eskuetan pilatzea. Fenomeno horiek ez dira berez gertatu, prozesuan zehar interes zehatz batzuk gailendu direlako baizik. Berlineko herritarrak orain arteko tendentzia aldatzeko lanetan dabilta. Udalak funts espekulatiboaren esku dauden milaka etxebizitza desjabetu ditza eta modu publikoan kudea ditza, erreferendum bat sustatzen ari dira.

Garai neoliberaletan, erakunde publikoak elitearen interesen bozgorailu akritiko izan dira. Berlineko herritarren adibidea jarraituz, udalek paper garrantzitsua hartu beharko dute aurrerantzean, gehiengoaren interesak defendatzeko balioko badute. Udalek eta erakunde publikoek bizitza duinaren gutxienekoen berme bezala aldarrikatu eta berrasmatu behar dute beren burua. Helduleku positiboak behar ditugu, eta tokiko erakundeek ilusioari ateak ireki behar dizkiote berriro. •



Iustrazioa: Jonbi EGURZEGI

3 BEGIRADA:

{ koaderno } **Joana Garmendia**

Putak eta emakumeak

Behin Ameliaren ondoan bazkaldu nuen. Ez genuen elkar ezagutzen, baina erraz topatu genituen kontutarako gaiak. Nola ez dakidala, prostituzioari buruz hasi ginen hizketan. Berak argi zuen bere postura: prostituzioaz ari garela, abolizioa da aukera bakarra. Ez dakit nik zein iritzi nuen berarekin hartaz hasi baino lehen, baina berdin zion: Ameliak lehenengo pertsonan hitz egiten zidan prostituzioaz, sexu-indarkeria sistematizatuz eta errepide-ertzeta-ko putetxez. Nire postura ere oso argi neukan, bada: isildu eta entzun.

Bizi izan dituen harago, prostituzioa eta emakumeen aurkako indarkeria ikerketagai ere baditu orain Ameliak. Horrelakoetan, alor teorikoagoetan-edo ari garenon lanak urrunagokoa dirudi; errealitateari ez hain lotua edo. Zer ote da bada hizkuntzaren azterketa, gure bide-bazterretan diru-truk neskek bortxatzen dituztela entzuten ari naituzenean. Bada, ez, horretan ere zuzendu ninduen Ameliak: hizkuntzak ere egin dezake min, hizkuntzak ere itxian dagoenari itzal egin diezaioke.

Emakumeak bortxaz prostituziora behartzeaz ari ginela, “*trata de blancas*” esapidea erabili nuen nik, mila aldiz entzun dudan terminoa errepikatuta, baina euskaraz nola esan ez nekiela. Ameliak, mila aldiz egin duenaren lasaitasunez, zuzendu egin ninduen: ez erabiltzeko esapide hori, mesedez, mingarri zitzaioela. Azaldu zidan, emakume europarrekin salerosketan hasi zirenean sortu zela kontzeptu hori; emakume zuriak (ere) prostituziora behartzen hasi zirenean, alegia. Ordura artean, ohikoa omen zen emakumeak saldu eta erostea, edo haiek bortxaz behartzea: emakume beltzekin edo beste leku batzuetakoekin egiten omen zen hori, ordea, ez europar zuriakin. Beraz, emakume beltzek ez zuten eskubiderik, haiek sal zitezkeen, edo bortxatu, edo erosi. Hori ez zen arazo. Horregatik esan zitzaion “(emakume) zurien salerosketa”: emakume zuriak,

eta soilik haiek, saldu edo erostea baitzen izendatu nahi zena.

Gaur egun, jakina, desberdin ulertzen dugu arazoa. Esapide zahartua erabiltzen dugunok ere ez dugu us-teko, gehienok behintzat, emakume beltzak saltzea edo bortxatzea ondo dagoenik. Esapideak berak, ordea, ez du arazoa egoki islatzen. Nik, isildu eta entzun: esango dut, beti, “trata” edo “pertsonen trata”.

Euskaraz ari ginen biak jo eta ke, baina behin eta berriro gaztelaniazko maileguen premia neukala ohar-tzen nintzen. Ezagutzen ditut euskarazko hitzak prostituzioaz aritzeko, baina historia handirik jakin beharrik ez dago horien atzean gordetzen den ideiar antza emateko. Emagaldtu, ematxar, urdanga: euskaraz, agidanean, argi daukagu nor den txarki ari dena prostituzioaren jokoan.

Prostituzioaren auziak agerian uzten du giza gatazka gehienak nahasten direla denak batean: nahasten

Ezagutzen ditut euskarazko hitzak prostituzioaz aritzeko, baina historia handirik jakin beharrik ez dago horien atzean gordetzen den ideiar antza emateko; emagaldtu, ematxar, urdanga...

dira emakumeen zapalkuntza, eta arrazakeria, eta pobrezia, eta zer ez. Esango nuke joan berri den Martxoaren 8ko aldarrikapen feministek ere erakutsi dutela hori: emakumeen aurkako bortxa mota asko dagoela, baina horiek denak datozela bat eginda bestelako gizarte-zapalkuntza motekin. Eta hizkuntzak garrantzia duela, diskurtsoa zaindu behar dela, hitzek min egiten dutela; hori ere islatu du Martxoaren 8koak. Egun horren bueltan kezkatuta zebiltzan gizonezkoek, beraien posturak nolakoa behar lukeen asmatzea ardura nagusi zuten haiei, zein leku hartu, zein leku utzi, nahastuta zebiltzaneik, horiei ere erakutsiko ote zien zerbait: isildu eta entzun. Behingoagatik bada ere. •

«Beizamako krimenaren dokumentazioa hiru pertsonak bakoitzak bere kasa aztertu, eta ondorio berera iritsi ginen»

Asier Sustaetak (Azpeitia, 1979) ez du ikus-entzunezkoekin lotutako inongo ikasketarik egin, baina betidanik gustatu zaio kamera artean ibiltzea. Musika talde batzuetan jotakoa da duela zenbait urte, eta testuinguru hartan ohartu zen asko gustatzen zitzaiola bideoklipak egitea. Hala, Asier bera eta bere adiskide Oihan Amezua beste zenbait lagunekin bildu ziren Erabaki Produzioak sortzeko. Bakoitzak badu bere ofizioa, eta ondoren ahal duten denbora eskaintzen diote proiektuari, baina, hori bai, Sustaetak defendatu bezala, emaitza profesionala lortzea helburu.

“Oinaze egoitzak” film laburrekin sari bat jaso zuten Lekeitioko Euskal Zine Bileran; “Aio” film laburra ere saritua izan zen, eta Sustaeta bertan estreinatu zen zuzendari bezala. Egin duten azken lana “Kronos” da, dezente denbora hartu diena. Orain bete-betean murgildu dira “Korosagasti” filmaren ekoizpenean, eta estudioa Azpeitiko esklaboen komentuan dute. Pelikulak 1926an Beizaman gertatutako krimena kontatuko du, eta suspensezko filma izango da.

Nola otu zitzaizuen Beizamako krimenaren inguruko pelikula bat egitea?

Azpeitian Udalak eta kultur mahaiak sormen beka bat abiatu zutela jakin eta egun berean sekulako kasualitatea gertatu zitzaidan. Sarean nabigatzen nebilela eskaintza batekin egin nuen topo: norbait duela 90 urteko egunkari bat saldu nahian zebilen. Egunkaria begiratzen hasi eta han zegoen dena. “*Los asesinos del*

crimen de Beizama”, argazkiak... Aurretik egindako “Aio” film laburra ere genero beltzkoa dela esango nuke, eta grabatu genuenean aktore lanean aritu zen Pedro Otaegi beizamarra. Hark kontatu zigun Beizamako kasuarekin ere bazegoela nahikoa mami film bat egiteko, baina, beno, ideia ahanzturan geratuta zegoen...

Baina egunkari zahar horrek berriro jarri zuen ideia mahai gainean...

Zazpi bat urte pasako ziren el-karrizketa hura izatetik egunkariarekin topo egin arte. Ez genuen proiekturik, baina sormen bekak horretarako aukera sor zezakeen, eta heldu egin genion. Egunkariaren argitaratze datatik abiatuta hemeroteka ezberdinetan ibili ginen ikerketak egiten, egunkari piloa deskargatzen... Hala, kronika bat osatzen hasi ginen. Hiru argitalpen alderatzen ibili ginen: “La Voz de Guipúzcoa”, “El País Vasco” eta “Argia”. Batzuek argi eta garbi defenditzen zizuten Lizardi baserrikoak, susmagarri nagusiak; beste batzuek, ordea, parean tokatzen zenari botatzen zioten errua. Pentsatu genuen kronika osatu, hedabideen arteko alderaketak egin eta egia hor nonbait ibiliko zela.

Objektiboki, eta gertaeretara mugatuta: zer gertatu zen Beizaman?

1926eko azaroaren 14ean Korosagasti baserrian hilik topatu zituen bere ahizpa eta ama Jazinta Odriozolak. Jazinta Tolosan bizi zen. Azpeitiko epaitegia arduratu zen kasuaz, eta

atxiloketa mordo egin ziren, berrogeitik gora. Arrazoi ezberdinak egon ziren atxiloten atzean, tartean blusa beltza eramatea, Jazinta Tolosan ikusi omen zutelako blusa beltza jantzita zeraman gizon batekin hizketan! Batek daki garai hartan zenbait blusa beltz egongo ziren etxe bakoitzean! Bat baino gehiago blusa beltzak lurpean ezkututzen ibili omen zen, pentsa...

Zabaldur zen beste kontu bat izan zen Korosagastikoek txahala saldu zutela, eta erosi zuena pagatutako diruaren bila itzuli zela baserrira. Horren ondorioz ganadu tratante ugari susmopean izan ziren. Egun horietan Beizamatik ijito familia bat pasa zen, eta familia osoa atxilotu zuten. Azkenean Itsasondoko Lizardi auzokoak atxilotu zituzten, Aranzegitarrak, eta haiek izan ziren susmagarri nagusiak (ama eta alaba gazteena izan ezik beste denak atxilotu zituzten).

Sei edo zazpi hilabeteko prozesu judizial bat etorri zen ondoren, eta epaiketari zehar jakin zen Jazinta ahizpa eta ama hiltzen saiatu zela aurretik, pozoitutako sagar batzuekin. Baina epaiketaren amaieran dekretu bat iritsi zen Donostiatik: denak kalera. Ez omen zegoen aski froga epai bat emateko.

Horretaz aparte, aipatzen da hamalau urte geroago, Itziarren, apaiz batek pulpitutik esan zuela Beizamako krimena burutu zuen gizonak hilzorian aitortu ziola egin zuena.

Hori litzateke, laburtuta, gertatu zena. Baina aztertu du-

ASIER SUSTAETA

«KOROSAGASTI» FILMEKO ZUZENDARIA

1926ko azaroaren 14an, Beizamako Korosagasti baserrian hilik agertu ziren Bibiana Azkardi eta Maria Odriozola ama-alabak. Beizamako krimena bezala ezagutzen dena, film bihurtzen ari dira.



Gorka RUBIO | FOKU

zuen informazio guztia barneratu ondoren, zein da gertatu zenaren inguruan duzuen iritzia?

Zergatik askatu zituzten Lizardi auzokoak? Guk gure susmoak dauzkagu. Badakigu Aranzegi familia boteretsua zela: baserriaren jabeak ziren, ganadu asko zeukaten, lur mordoa, zerrategi bat... Elizarekin harreman oso ona zeukaten, eta ermita bateko teilatua konpontzeko diru asko eman zuten.

Badakigu Elizak nola funtzionatzen duen egun, nola funtzionatzen zuen orduan... Kontua da erruduntzat jo zuten gizon hark, Itziariko Santuaran baserriko Luxiano (*Mekatxis* ezizena zuena), aurretik ere bazeukala hildakoren bat bere bizkar, eta kulpa hiltzaile bati botaz gero, ba jendea ez da asko harritzen.

Gure ondorioa da bazeudela nahikoa frogak, Lizardin Korosagasti baserriko gauzak topatu zituztelako. Nabarmena zen Korosagastin izan zirela. Epai-leak berak aitortu zuen kazeta-

«Epailea erdal hitzuna zen, gaztelarra; Beizamakoek ulertu ulertuko zuten zerbait gaztelaraz, baina hitz egin dena euskaraz egiten zuten»



rien aurrean Korosagastin egindako gazta batzuk topatu zituztela Lizardin...

Lehen aipatu duzu egia topatzeko ahaleginean, hedabideek ziotena alderatzen aritu zinetela. Zuentzat, norabide horrek Lizardira al darama?

Nahiko argudio daude. Ez da gaztarena bakarrik, odoldutako arropa ere topatu zuten, eta Lizardikoek esan zuten egun hartan txahal bat jaio zela baserrian eta erditzeko lanen odol-arrastoak zirela arropetakoak. Guretzat gako deklarazioetan dago. Denek adierazpen bateratu bat osatu zuten, baina batek kale egin zuen, eta gauza oso ezberdinak esan. Hori dena jakin eta gero, kalera? Traturen bat izango zen tartean.

Erauskin Errotarik errugabetzat jotzen ditu Lizardikoak bere bertsoetan, eta Goierri eta Urola inguruko jende gehiena iritzi berekoa zen.

Bai, eta ez hori bakarrik, baita kazetari batzuk ere. “El País

Vasco” egunkarira jo (egungo “El Diario Vasco”) eta lau orrialdeko erreportaje grafiko bat aurkitu genuen, Aranzegi familiakoen zazpi edo zortzi erretraturekin. Zuriketa lan hutsa zen, hedabide bat haien zerbitzura nahi zutena esateko. Omenaldi bat ere antolatu zieten herrian.

Hau dena ez da nire susmoa bakarrik. Hiru pertsonak Beizamako krimenaren inguruan bildutako dokumentazio guztia eraman genuen etxera, bakoitzak dena bere kasa aztertu, eta ondorio berdinerira iritsi ginen: «Honek egin du, eta honengatik».

Testuingurura jota, uste duzu krimenaren harira talka bat bizi izan zela hirigune erdaldundu eta landa eremu euskaldunaren artean?

Bai, handia gainera. Epailea erdal hitzuna zen, gaztelarra; Beizamakoek ulertu ulertuko zuten zerbait gaztelaraz, baina hitz egin dena euskaraz egiten zuten. Kexu agertu zen epailea kazetarien aurrean, akusatuek erantzuteko hartzen zuten denborak aukera handiagoa ematen zielako erantzuna prestatzeko; ezin zituen sorpresaz harrapatu. Gainera, ziur zen adarra jotzen ziotela. Jazintaren kasuan, Tolosan bizi zen, hiru urte zeramatzan neskame erdaldundu batzuen etxean... Hori ikusita, epaileak zer esango zuen ba? “Etxekoei ulertzen die eta niri ez?”. Baserri jabe edo euskaldunak gutxietsi baino, hedabideek bordetan bizi ziren artzainen kontra jo zuten: «*hombre tosco y sombrero, de pocos amigos...*». Irudi hori zabaldu zuten.

Gipuzkoan gertatutako lehen krimen mediatikoa izan zen?

Egunkariek bazeukaten presentzia, baina ez dakit irratia zenbateraino zegoen zabaldua, irratitik ezin izan dugulako ezer jaso kronika osatu ahal izateko. Argazkigintzak ere ez zeukan hainbeste urte orduan... Lehenengoa izan ez bazen, lehenengotakoa. Bestalde, krimenak ere izan ziren lehenago, noski, baina ez dago inondik inora kasu honetan topa daitezkeen datu mordoa. Hedabideek egunero egiten zuten kronika, krimenaren egunetik martxora arte, egunero, berririk ez zegoe-la esateko ere: «*Las últimas noticias son las mismas... el juez entra a las 8 de la mañana... sale a la 1 a comer, entra a las dos y media después de la siesta... ha salido a las 8 y no ha dicho nada nuevo...*».

Krimenaren egunetik abiatuta, egunero ez bazen, ia beti agertu zen zerbait zazpi bat hiltzete pasa arte. Jaso dugun azkeneko berria 1941eko da, eta ordutik honakoak kasua mintzagai duten erreportaje modernoak dira.

Zer moduz doaz filmeko grabaketa lanak?

Ondo! Grabaketetarako 31 egun aurrekusi genituen, eta 25 eginak daude jada. Azpeitiko Esklaboen komentuan daukagu lantokia (lokalak Udalarenak dira), eta hainbat lokalizazio bertan jarri ditugu: epailearen bulegoa, Korosagastiko sukaldea, ziega, galdaketa gela, herriko ostatu zaharra, pasillo zentrala, Lizardiko gela bat, Zeru Txiki ostatuko gela bat (Jazintak lan egin zuen taberna, Tolosan), autopsia gela bat... Hemendik kanpo, Urrestillako hilerrian eta baserri batean ere egin ditugu grabaketak, baita Azpeitiko zerrategi batean ere. Zeru



KOROSAGASTI FILMA

Txiki taberna bilakatu genuen Azpeitiko Alejandro ostatua. Kartzelako ataria Loiolako basilikaren atzealdean kokatu dugu.

Zer baliabide ari zarete erabiltzen 1926. urteko giroa lortzeko?

Argiztapenari dagokionez, garai hartan landa eremuan ez zeuden bonbilla asko, eta baserri gehienetan ez zegoen argindarrik. Kaleetan farola batzuk bai, agian, baina oso ahulak. Kartzeletan kandelak zeuden, eta horrek lantxo bat eskatu digu. Arropak ere bai, zer esanik ez. Kotxe zaharren bilduma egiten duen herriko batek ere utzi digu autoa...

Grabaketak kanpoan egiten ditugunean, berriz, asko jolastu behar dugu ezkutaketan: farolak, kableak, barandak, asfaltatutako lurra... Gainera, ez da erraza masa bota gabeko lurra topatzea, dena urbanizatuta baitago egun. Mendira joz gero bai, baina, noski, hori eginda baliabide pilo bat galtzen dira. Loiola atzean hala gabiltza: tona bat hondar bota, zabal-

du, lurra zikindu, gero bueltan jaso... Gurea lan kooperatibo bat da eta bakoitzak bere aletxoak jartzen du.

Hau ez da zuen ogibidea.

Ez, ez! Ni altzarigintzan nabil, eta Oihan soinu enpresa batean! Musu truk ere ez gabiltza, baina ez da gure ofizioa.

Zer sentituko dugu gehienbat «Korosagasti» ikustera joaten garenean? Beldurra, suspensea...

Suspensea batik bat. Tentsio une batzuk izango dira, baina beldurra ez hainbeste. Filma hiltzailea nor den jakin nahi horretan igaroko da...

Azpeitiko Udalaren beka. Herriko gidoilariak. Istoria ere gertukoa. Aktoreak inguruko antzerki taldeetako kideak. Hau «0 km» pelikula bat da!

Hala da, bai. Gainera, parte hartzen gabiltzan gehienok bagenuen krimenaren berri: "nire aitak kontaktzen zuen", "nire amonak zioen"... Inguruko jendeari mesede egingarriak eskatu, eta proiektua

forma hartzen joan da. Bekaren prozedura bera eredugarria izan daiteke beste herri batzuetan antzeko proiektuak bultzatzeko. Guk garbi geneukan bakarrik ezingo genuela hau dena egin, lau lagun artean eta gure denbora librean. Ez genuke izango ez filma ekoizteko ez aurrera ateratzeko baliabiderik. Ikus-entzunezkoekin lotutako ikasketak egin dituzten gazte asko ari dira parte hartzen: aktoreak, gidoilariak, arte zuzendariak, soinu eta argiztapen arduradunak... Badakite zertan dabiltzan, eta baditugu baliabideak. 58 lagun gabiltza lanean. Gure denbora librean gabiltza, bai, baina zalantzarik gabe emaitza profesionala izango da. Orain arte egin ditugun ekoizpenetatik "Korosagasti" filmela kristoren saltoa dago. Badago jantzietarako estilista bat ere, Xanti, bere bizitza laboraleko sei hilabete hartu dituen pelikula egiteko.

Pelikula urte amaierarako prest izango da, orduan?

Nik uste baietz, eta estreinaldia Azpeitian egingo da.

KANTA BELTZAK

Krimenen musikak, hitzak eta istorioak

JENDARTEA / Beñat HACH EMBAREK

Euskal Herriaren luze zabalean aspaldi batean gertatutako zenbait krimen gordin oso fresko iritsi dira gaur egunera, kultur espresio ezberdinak baliatuta: liburuak, kantuak, ipuin kontagintza, bertsoak... Baita zinema ere, Beizamako krimenaren kasuan aurki ikusi ahalko dugun bezala.

Eman diezaio-
gun errepasso
labur bat Eus-
kal Herria az-
toratu zuten
zenbait krime-
ni, baita gertaerok utzitako
kanta eta bertsoei ere.

Gaur egun munduan gertatzen den edozein astakeriaren berri jasotzen dugu sakelakoan, unean bertan, eta maiz, eskatu ez arren, bideoz. Informazio uholde etengabea tarteko, gizaki garaikidea basakeria handienak asimilatzen iritsi da, eta lasai demonio jarrai dezake bazkaltzen pareko pantailari bortxa darion bitartean.

Aspaldi batean ere bazen, noski, basakeria, baina koka gaitetzen gure arbasoen azalean, azalpen bila. Atzerriko hainbeste albiste etxeko atarira iristen ez ziren garaian, aparteko gertakizun batek har zezakeen dimentsioa erraldoia izan zitekeen. Euskal Herriko zonalde menditsuak baserri zosita zeudenean, etxe bakoitzean jende asko bizi zen aroan eta askotan herria igandetan soilik zapaltzen zenean, isolamenduak norbanakoa-
ren iruditegian sekulako eragina izan zezakeela pentsa daiteke; eta inguruan

jazotako krimen batek profil hartako pertsonengan kezka ikaragarriak eragin zitzakeela ondorioztatu.

Ezaugarri antzekoak partekatzen dituzten kasu asko daude, gehienbat, herrian sortu zuten izu, morbo, edo, zergatik ez esan, behin denbora bat pasata, zirrarenegatik. Askoren berri bertsoen bidez izan dugu. Izan ere, bertsoa zen orduko kultur adierazpide esanguratsuenetako bat, eta bertsolariak, beti, euren garaiko kontuen kantari izan dira.

JOSE LARRAÑAGAREN HILKETAK

Kasu sonatuenetako Jose Larrañagak egindako hilketena da, gaurdaino "Hama-lau heriotzena" izenburuko bertsopaperean iritsia, Julien Lekuona eta Antton Valverde duela 40 urte inguru musikatutakoa. Orduetik ere abestiak bere bidea egin du, Oskorrik "The Pub Ibiltaria" egitasmoan sartu baitzuen eta Morau abeslariak ere kantatzen baitu. Ezin da ziurtatu ez bertsoak Jose Larrañagak berak idatzi zituenik (kasu askotan beste norbaitek egiten zituen lehen pertsonan), ez darabilen euskara Mendarokoa denik (bertakoa zela baieztatu da baina ez da ziurra).

Atzerriko hainbeste albiste etzeko atarira iristen ez ziren garaian, aparteko gertakizun batek har zezakeen dimentsioa erraldoia izan zitekeen Euskal Herriko bazterretan

Krimen bortitzak egin zituen Larrañangak. Ezagunena, familia oso baten hilketa, kantuan hotzikarak sortzeko moduko detaileekin kontatzen dena. 1825eko urriaren 13an gertatu zen, Migel Galdos eta Katalina Gandiaga senar-emazteak eta bien alaba Joseba Mikaela hil zituenean Etxebarriko Altzibar baserrian.

«Estimatu ninduten Conde bat bezala/ sillan esesirirican afaldu nezala/ Nagusia eta bioc etciñen guiñala/ conformatu ci raden familia ala/ pechutic sar tu nion berari puñala».

BERDABIO ETA TRABUKO

Joxe Etxegarai nor izan zen galdetuz gero, oso posible da ideia zipitzik ez izatea. Baina bere etxea Berdabio zela esan, eta bere etsaiaren ezizena Trabuko, eta oroituko zara Goizuetan bazela gizon bat bihotza faltsu zuena.

Etxegarai metal preziatuak lapurtzen zituen laukote bateko kidea zen; ondoren kobazulo batean urtu egiten zizutzen diru faltsua egiteko. Trabukok hori salatu zuen, eta Berdabio Iruñeko espetxera bidali zuten. Baina ostean salaketa erretiratu zuen. Zergatik? Berdabiok bazekielako Trabukok Lesakako gizon bat hil zuela Elamako burdinolan, eta tratua egin zuten: batek salaketa erretiratzen bazuen, besteak ez zuen ezer esango.

«Ongi, ongi oroitu hadi zer egin huen Elaman/ Difuntu horrek izatu balu jarraikilerik Lesakan/ orain baino lehen egongo hintzan ni orain nagoen atakan».

ESTUDIANTE KONDENATUA

Historiaren zurrumbiloan galdu ez den beste gertakizun bat,

Krimen askoren berri bertsoen bidez izan dugu. Izan ere, bertsoa zen orduko kultur adierazpide esanguratsuenetako bat, eta bertsolariak, beti, euren garaiko kontuen kantari izan dira

honakoa ere geuregana bertso paper bidez heldutakoa, Aitzina folk taldeak “Kosinatik kanberala” albumean musikatutua: “Estudiante kondentua”.

Gaiaren inguruko lan mardula egin zuen Xabier Kaltzakortak: “Bertso jarrietatik ahozkoa (Urkabe-bertsoak euskaraz: estudiante gaztearenak eta beste)”. Ezin da ziurtasun osoz baieztatu ikaslea nongoa zen, baina, hori bai, bertsoen aldaera gehienak Dima eta Zornotza ingurukoak direnez, ingurumari hartakoa zela esateko atrebentzia har daiteke. Abesti gogorra da, baina kasu honetan errukia ere eragiten du: estudianteak ez

ditu oraindik 18 urte bete, hiru daramatza dagoeneko preso, ama eta arreba aipatzen ditu... eta den-dena hiru pezetako karta joko ziztrin batean beste estudiante bat hiltzeagatik.

(Dimako aldaera)

«Estudiante naiz/ oraindino gaztea amazortzi urte be kunplidu bagea/ Iru pezeta zalla/ kartazko jokoa/ bertan ilda itxi neuen/ estudiante majoa/ –Ama, gura dau berorrek/ ni libradutea?/ Eriotza egin dot/ ezta posiblea./ Atzo etorri jatan/ arreba gaztia/ lastime emoten daustela/ onelan ikustea./ Ai ene Jaungoikoa/ kanpaiaren otza/ igual izingo da/ urkamendikoa/ Au de urka-

Beheko irudian, Erauskin Mugika sendia. Patxi Erauskinek, «Patxi Errota» bezala ezagunak, idatzitako bertsoek kontatzen dute Beizamako krimena. JUAN IGNAZIO IZTUETA FUNDAZIOA



mendiko/ aizearen otza!/ Gure Jaunen aurrerako/ nik daukadan lotsa».

AIAKO JOSE FRANTZISKO TEJERIA

Aiako Muatz baserriko Jose Frantzisko Tejeriak bere aita hil zuen, eta horregatik garrotea emanda exekutatu zuten 1900. urteko urtarrilaren 16an, Azpeitiko plazan. Herriko ostatu denak beteta zeuden bezperan, eta 6.000 lagun inguru bildu omen ziren exekuzioa ikustera.

Garai hartako exekuzioetako giroa makur samarra pentsa daiteke ezagutzen ditugun datuak ikusita: umeak behartuta eramaten zituzten (eta batzuk behartu gabe ere joango ziren gustura), apaizak sermoia ematen, kazetariak, hil behar zuten koitadua erromeria dantesko haren erdian... Desgrazia hark bertso-sorta bat utzi zuen, lehen pertsonan idatzia izan arren (garaian asko erabiltzen zen errekurtsua) Juan Mari Zubizarreta *Etxetxo* bertsolari azkoitiarrak eginak. Hemen hautatutako hiru:

«Bertso berriak Azpeiti´ko Urkamendiaren gainean jarriak: Jose Tejeria da au nere grazia,/ Gipuzkoa´ko Aia´n jaiotako azia;/ tiroz aita ill nuan, orra desgrazia,/ publikatzera nua asunto guzia./ Deabrubak animua eman biotzera,/ tiroz atrebituba nire aita iltzera;/ Donostia´ra gero zerbait ekartzera,/ egin nuen okerra desemulatzera. (...) Gaizki egin nuala ondo damutzen zat,/ au eskarmenturako beste guzientzat;/ munduban ez da izan oraindikan behintzat/ ume bat txarragorik gurasubarentzat. (...)».

Baina noski, gaizkile guztiak ez ditu justiziak kondenatzen.

Maiz, gaizkile handienak justizia maneiatu eta beren alde daukatenak dira. Hori da, esaterako, Leringo Luis Beaumont kondearen kasua. Beaumont, abizenak adierazten duen legez, beaumontarra zen; eta, Bereterretxe, agaramontarra. Erdi Aroko Zuberoatik, 1440tik, iritsi zaigu “Bereterretxen khantoria”, Jean Jaurgain ozartzarrak “Quelques légendes poétiques du pays de Soule” liburuan argitaratua eta Mikel Laboak 1964. urtean modu ezti, zoragarri eta sakonean musikatua.

Kantuak istorio bat kontatzen digu. Beaumont eta Bereterretxe etsai politikoak ziren, baina, horrez gaindi, esaten da emakume bera maite zutela, Ezpeldoiko Margarita. Beaumontek (edo bere gizonak) azpijokoz ateratzen du Bereterretxe etxetik, esanez berehala itzuliko dela; baina azken honek antzematen du ez dela hori gertatuko. Abestiak kontatzen digu, besteak beste, Bereterretxe preso hartu zutela, Ligin txapela lurrera erori zitzaiola eta hartzen ere ez ziotela utzi, eta gero Ezpeldoiko haritz bati lotu eta hil zutela. Bereterretxeren ama, Marisantz, ziztu bizian hasten da bere semearen bila bahitu dutela jakin bezain pronto, baita Margarita Ezpeldoikoa ere.

«Heltü nintzan Ligira, Buneta erori lürrera,/ Buneta erori lürrera eta eskurik ezin behe-
ra./ Heltü nintzan Ezpeldoira,/ Han haritx bati esteki,/ Han haritx bati esteki eta bizia zaitan idoki./ Marisantz lasterra/ Bost mendietan behe-
ra/ Bi belainez herrestan sartü da Lakarri-Büstanobila./ Ezpeldoiko alaba/ Margarita deitzen da:/ Bereterretxen odole-
tik ahürka biltzen ari da».

Beste koitadu baten ausazko gomutak Joseba Sarrionandiarren lumatik eta Ruper Ordorikaren eztarritik jasoko genituen gehienok, zerua itsaso zikin bat zela esanez. Baina Piarres Larzabalek idatzitako “Bordaxuri” antzezlanak egin zuen lehen aldiz ezagun. Martin Larralde 1782ko urtarrilaren 7an jaio zen Hazparneko Bordaxuri baserrian. Marie ama zendu zitzaionean, Martinek aitari, Guillaume Larralderi, ama zenaren baserri zatia eskatu zion, ama izatez sortetxe horretakoa baitzen. Baina aita (sorpresa, sorpresa), ez zen iritzi berekoa.

1815eko ekainean Guillaumek baimena eman zion bere bizilagunari, Kaselaren bordako Jean Ospitali, haien inguruko lurretan belarra bil zezan. Horretan zebilela, Ospitalek tiro bat jaso zuen bizkarrean. Jendarmeez Martin Larralde jo zuten errudun, eta epaiketan galeretara kondenatu zuten (zazpi epaile erabaki horren alde eta bost kontra). Galeretan bost urte iraun zituen bizirik, 1821eko abenduaren 19ean hil zen arte. Martin Larraldek beti defendatu zuen errugabe zela, idatzita utzi zituen bertsoak lekuko (ez bazituen beste norbaitek lehen pertsonan idatzi). Pantxoa eta Peiok abesti bat sortu zuten, “Galerianoren kantua”. Dozena bat bertso dira, hona bi:

«Kantatzera nihazu alege-
ra gabe,/ ez baitut probetxu-
rik trixkaturik ere;/ nehun
ebatsi gabe, gizonik hil ga-
be,/ sekulazko galereak ene-
tako dire... Ala zorigaitzeko
premu izaitea!/ harrek eman
baiteraut betikotz kaltea;/
aitari galdeginik sortzeko
partea,/ galeretan eman nau,
hauxe duk dotea!».

BEIZAMAKO KRIMENAREN BERTSOAK

1926ko azaroaren 14an krimen izugarria gauzatu zen Beizamako Korosagasti baserrian: Bibiana Azkardi ama (66 urte) eta Maria Odriozola ahizpa (27 urte) hilda aurkitu zituen Jazintak igande goiz batean etxera iristean. Al-bistea ziztu bizian zabaldu zen Gipuzkoa osoan, eta sekulako ezinegona sortu zuen garaiko gizartean. Erreportajearen hasieran aipatu da garaiko lagun askok ia egunero bizi zuten isolamendua aintzat hartuta, inguruan gertatutako krimen bat aparteko gertakizuna zela gehientzat. Gainera, ezinegon orokor horri garaiko teknologia berrien bidez bazter askotara iristen ari ziren hedabideak gehitu behar zaizkio: irratiak eta egunkariak. Sekulako oihartzuna izan zuten hilketek Gipuzkoako komunikabideetan.

Poliziak jende mordoa atxilotu zuen, tartean, Korosagasti baserri-
hurbil dagoen Lizardi auzoko (Itsason-
do) Aranzegi eta Mujika sendiak. Gi-
puzkoako landa eremuan berehala za-
baldu zen atxiloketa horiek ez zutela
ez hanka eta ez buru, polizia ausaz jo-
katzen ari zela, eta Azpeitian 2.000 la-
guneko manifestazio bat egin zen
haien askatasuna exijituz. Bien bitar-
tean, Lizardin, ingurukoek baserriko
lanak auzolanean egin zizkieten Aran-
zegi eta Mujika sendietako kideei es-
petxean egon ziren bitartean.

Atera zirenean, ongiatorri bazkaria antolatu zieten Itsasondon, eta horren bueltan, Patxi Erauskin bertsolari zal-dibiarrak, *Erauskin Errotari* bezala ezaguna, bertso hauek idatzi zituen:

«Auxen da era etorri dana bertso ba-
tzuek jartzeko/ kulparik gabe preso
egon diran itsasondotarrantzako/ letra
bat ez da izango inor ofendituzeko/ es-
kerrak onak lege-gizonak zeuzkatela li-
bratzeko/ Millaz ondoren bederatzi eun
da ogei ta seigarren urtean/ Azaroaren
amalauean egun senalamentean/ ne-
gargarri bat gertatu zana Gipuzkoa'ko
partean/ Beizama erriko Korosagasti
baserri etxe batean».

«Etxe orretan bizi ziraden ama ta
alaba bakarrik/ lanean zintzo saia-
tzen ziran egin gabetan oporrik/ egun
orretan arkitu ziran biak ill da otzitu-

*rik/ Euskalerrian ez da gertatu asko-
tan orrelakorik/ Jazinta Odriozola bes-
te alaba neskame zegona Tolosan/
egun orretako amaiketan etxe ortara
igo zan/ bere ama ta aizpea illak billa-
tutzaille bera zan/ aditzerakin ala
errira destetxaetan joan zan/ Jazinta
bera parte ote zan jarririk errezoloso/
kulparik gabe egotea're izan zeikean
akaso/ zerbaitegatik sartua zuten bi-
garren aldian preso/ ez da gainera li-
bratu ere garbi jakin arte oso».*

«Agintariak saiatu ziran nun billatu-
ko usaiak/ ama-alaba il zituztenak
agertutzeko etsaiak/ lendabiziko artu
zituzten ijitano ta artzaiak/ kulparik
gabe preso, etzeuden aien biotzak la-
saiak».

«Andik urrena Itsasondo'ko Lizardi-
tara jo zuten/ aurrean artu Azpeitia'ko
kartzelara zuzen-zuzen/ periodiko ba-
tzuek berriz gezur aundiak zabaltzen/
oiek kulpante omen zirala baita're as-
kok sinisten».

«Eriotz aiek bateonbategin egin zi-
tuan serio/ esan lezake elkarrengana
asko zutela odio/ aizken orduan guz-
tion aitak kontuan artuko dio/ zen-
bait familik negar egin du kaso ori
zan medio».

«Aita-semeak, ama-alabak, senar eta
emaztiak/ izan dituzte oso garratzak
gau t'egun, jai ta astiak/ kulparik gabe
eraman bear oinbeste pena tristiak/
orain etxean libre daude ta aztu bi-
tzaie guztiak».

«Ondo dakigu iltzaile oien billa zo-
rrotz dabiltzala/ denok nai degu gaizki
eginak arren argitu ditzala/ merezi
du-ta bizia kendu edo betiko itzala/
kulpa gabe preso egotetikain Jainkoak
libra gaitzala».

«Maiatz illaren ogei ta batean ta la-
runbat arratsean/ aitzenekoak aita-se-
meak erabat libratu zian/ poz-dardara
bat sartu zitzaigun askori bai biotze-
an/ lo-gurerikan inork etzeukan oiek
errian sartzean».

«Orra azaldu kulparik gabe nola
egonduak diran/ inorentzako mesede-
rik ez, familientzat galeran/ onra ema-
naz bertsoak kanta mundu guztien au-
rrian/ iltzaile krimen lapurrik ezta
Itsasondo'ko errian».

ARTEAK IREKI

Ikuskizunak murrizten dituen dekretuaren aurkako plataforma

 JENDARTEA / Ion Salgado

Euskal Herriko ostalaritzako eta kulturako hainbat eragilek osatu dute Arteak Ireki plataforma. Beraiek azaltzen dutenez, Lakuak «aisialdirako ekintza eta emanaldiak murriztu nahi izatearen kontra» batu dira. Kultura Espazioen kategoria berria sortzea proposatu diete erakundeei, «edukiera txikiko espazio kulturalak babesteko».

Otsailaren 5ean Gasteizko Gobernuak, Segurtasun Sailak eskatuta, jendaurreko ikuskizunen eta jolas jardueren lehenengo erregelamendua onartu zuen, «Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas

Jardueren abenduaren 23ko 10/2015 Legearen segurtasun juridikoa areagotzeko, lege horretako aginduak zehaztuz». Lakuak komunikabideei bidalitako oharrean azaltzen zenez, «egingo den erregelamendua lagundu behar du jendaurreko ikuskizunak eta jolas jarduerak gauzatzeko dire-

Otsailean aurkeztu zen Arteak Ireki plataforma, Gasteizko Florida parkean egindako agerraldian.
Endika PORTILLO | FOKU

nean eraginpeko pertsonen segurtasuna bermatzen, erabiltzaileen eta hirugarrenen eskubideak errespetatzen eta aisiarako eskubidea eta herri-tarrek dituzten gainerako eskubideak era baketsuan bateratzen».

«Erregelamenduaren bidez jarduerak eta ikuskizunak egiteko lekuetan egituren sendotasunari eta higienerari buruz eska daitezkeen baldintzak zehazten dira, bai eta ikuskizunetan eta jolas jardueretan egoteko eta onartzeko baldintzak ere, eta arreta berezia eskaintzen zaie adingabeen babesari eta ekitaldietako bizikidetzari baketsuari eta erosotasunari buruzko beste baldintza batzuei, eta ekitaldi jakin batzuei jendea onartzeko,



segurtasuneko eta akomodazio-ko kontrol zerbitzuak ezarzen dizkie, horien ezaugarriak eta edukiera kontuan hartuta», azaldu zuen Gobernuak komunikatuan, erregela-menduaren ustezko onurak nabarmenduz.

Lakuako Gobernuak ez zuen aipatu, ordea, onartutako dekretuak zuzeneko emanaldiak eta aisialdi ekintzak mugatuko dituela. Segurtasun Sailak egindako erregelamenduaren arabera, urtean gehienez hamabi ikuskizun egin ahalko dira tabernetan eta lokal txikietan, eta horrek eragile kultural eta ostalarien haserre sortu du. Elkarrekin Arteak Ireki plataforma sortu dute Lakuaren dekretua salatzen, izan ere, Gobernuak «halako erabakiekin, gure gizartearentzat hain



Asanblada irekia egin zuten Arteak Ireki plataformako kideek Gasteizko Arkupeko ibilbidean. Ithana IRIONDO | FOKU

inportantea den zerbaitekiko mespretxua erakusten digu, kultura bultzatu eta berau kontsumitu eta gozatzearekiko mespretxua».

«Duela urtebete erakutsi genuen geure haserre eta kezka Gasteizko Udalak martxan jarri nahi zuen legediaren inguruan. Gogoratzen bazarete, legedi horrek taberna eta lokaletako emanaldiak urtean hogeita laura murriztu nahi zituen, hilean bira. Ba, gaur haserre eta kezka handiagoz gatoz, izan ere, Eusko Jaurlaritzak urtean hamabira murriztu nahi ditu, hilean bi besterik ez egitera. Erakunde horretatik etorrira, dekretu honek Bizkai, Gipuzkoa eta Arabako herri zein hiriei eragingo die. Gasteiztik Zarautzera, Arrasateetik Durangora, ostalaritza-

MILAKA LAGUNEN BABESA JASO DU HILAREN 23AN EKIMEN KULTURALAK ANTOLATZEKO DEIA EGIN DUEN ARTEAK IREKIK

Arteak Ireki plataformak manifestu bat argitaratu du eta sinadura bilketa jarri du martxan Change.org webgunean. Bertan azaltzen da martxoaren 23an, datorren larunbatean, antolatu duten ekimena. «Datorren martxoaren 23an gure auzo, herri eta hirietako kultura espazioak errebindikatuko ditugu Eusko Jaurlaritzak indarrean jarri nahi duen urteko hamabi ikuskizuneko muga ezartzen duen dekretuaren kontra», dio plataformak.

Proposamen zehatza ere egiten die Arteak Irekik ostalariei eta herritarrei: «Egunean zehar ekimenen bat antolatu zure herriko taberna edo kaleetan, edozein espresio bide izan daiteke, kalejira bat, bertso saio bat, kontzertu bat, argazkiak egitea, kaleetan kantatzea, ipuin kontaketa bat... Bakoitzak nahi duena, ahal duen moduan, dekretuaren kontra presioa egiteko. Taberna, lokal eta elkar- teek

gizarte osoarentzat duten balioa azalera da asmoa Euskal Herri zabalean, bakoitzak nahi duen ekimena aurrera eramanez. Horiek direlako kultura herrira hurbiltzen dutenak, bizia ematen dietenak. Kultura, zenbaki bat baino askoz gehiago delako».

Change.org webguneko sinadura bilketarekin 13.000 lagunek egin dute bat dagoeneko. Eta beste 2.500 lagunek ere sinatu dute #ArteakIreki manifestua. Testuan gogoratzen da taberna txikien garrantzia, izan ere, «talde guztiek, hasi Berri Txarrak-etik eta La Oreja de Van Gogh-era arte, lokal eta taberna txikietan egin zituzten euren hastapenak. Zein da beraz, orain hasten ari diren taldeen etorkizuna?». Eta edukiera txikiko aretoak, sektoreak bizi duen prekaritatearen adibide direla ohartarazten da, «historikoki beraien balore kulturalagatik aitortuak izan dira, baina ziurgabetasun juridiko

izugarria bizi dute. Horregatik globalki lan egin behar da, espazio hauek bultzatu eta babestuko dituzten neurri sektorial zein publikoak hartuz».

Egoera horren aurrean Kultura Espazioa kategoria berria sortzea defendatzen du Arteak Irekiz plataformak, eta Lakuako ordezkarien lana kritikatzeko, izan ere, nahiz eta ez jakin «zer analisi edo gogoeta egin dituzten dekretuaren arduradunek Eusko Jaurlaritzan, badakigu udaletako kultura arloko plan estrategiko guztiekin talka egiten dutela». «Zer du esateko Kultura sailburuak? Zer dute esateko udaletako ordezkariak?», galdetzen du plataformak manifestuan, eta arduradun politikoei dei egiten die «gainontzeko talde politikoei akordio bat lor dezaten Legebiltzarrean», eta ez dadin dekretua aurrera atera.

«Dei egin nahi diegu EAeko lokal eta ostalari guztiei erne egon daitezen eta

ez dezaten beraien kexa agertzeko aukera galdu murrizketa honen eta sektorearen kontrako eraso honen aurrean. Dei egin nahi diegu EAeko kultura arloari beraien ahotsa gora dezaten gehiegikeria honen aurrean. Dei egin nahi diegu EAeko herritarrei hau sektore inplikatuaren adostasunik gabe aurrera badoa, datozen udal hauteskundeetan izan dezaten hau guztia kontuan botoa ematerako orduan. Imajinatzen al duzue halako dekretu bat Irlanda moduko herrialde batean? Eusko Jaurlaritza Europara begira ari al da? Nora ari ote da begira?», nabarmentzen du plataformak manifestuan. Artista eta talde ugari- ren babesa jaso du jada manifestuak, tartean, Soziedad Alkoholika, Eloy Beato, Jon Basaguren, Rafa Rueda, Enrique Villareal, Fermin Muguruza, Fredi Paia, Evaristo Paramos, Eñaut Elorrieta, Anari Alberdi eta Txerra Bolinaga.



Miren Narbaiza eta Iker Zubia egon ziren pasaden astelehenean Gasteizko Legebiltzarrean. GASTEIZKO LEGEBILTZARRA

ren sektore handi bati egingo dio kalte, eta eragile kultural guztiek sufritu beharko dute zentzugabekeria hau», adierazi zuten otsailaren 14an Miren Narbaiza eta Iker Zubia plataformako bozeramaileek.

Azaldu zutenenez, «murrizketak» uda parteko zuzeneko emanaldiren bat bertan behe- ra uztea eragingo du, edo, «nork daki, herriko, edo hiriko jaietarikoren bat». «Zer gertatuko da Gasteizko Jazzaharrean edo Zornotzako Haizeetara jaialdiekin? Zer pasako da, adibidez, Bilboko Aste Nagusiarekin?», galdetu zuten, eta mugatzeak ikuskizun eta aisialdi ekintzei eragiten diela ohartarazi zuten. «Beraz, ez die kontzertu edo musika emanaldiei bakarrik eragingo, baita antzerki, bertsolari, DJ sesio edota erakusketei ere. Gerta liteke eliz atarietako abesbatzen emanaldiak ere gutxitu behar izatea», gaineratu zuten, eta

dekretua «komertzio txikiari, turismoari eta kulturari egingo dako eraso» dela nabarmendu zuten.

«Ez da posible festibal handien garapena ulertzea leku txikietan hasi eta garapena bermatuko duen bertako eszena babestu gabe. Dekretu honen moduko neurriak behar diren, elkarrekin eraikitako estrategiak behar dira. Goi mailako eta herrietako musika eskoletatik, eta sorkuntza guneetatik ateratzen diren musikari eta artistei babes eman, eta euren garapena eta esangura aintzat hartuko duten baliabide eta araudiak behar dira», nabarmendu zuten, eta, dekretua «azken finean, eskal gizarite osoari egindako eraso dela» salatu zuten.

Egoeraari aurre egiteko, Kultura Espazioen kategoria berria proposatu zuten Arteak Irekiko bozeramaileek, «edukiera txikiko espazio kultural

berezi hauek babesteko bideak martxan jartzeko ezinbesteko pauso modura, betiere auzokoekin elkarbizitza bermatuta». «Formatu txikiko arte eta musikarentzako arautegi arauesparru berri bat lortu behar dugu. Bartzelonako Udala zentzu horretan ari da arautzen eta egungo errealitatera moldatzen: zuzeneko emankizunak bultzatu nahi ditu, urtean, gutxienez 40 izateko. Eusko Jaurlaritzak, berriz, arau kosmopolita, moderno progresis-

Dekretuaren arabera urtean gehienez ere hamabi ikuskizun egin ahalko dira tabernetan eta lokal txikietan. Horrek eragile kultural eta ostalarien haserrea sortu du

Eusko Legebiltzarrak ostegunean eskatu zion Lakuari bertan behera utz dezala urtean hamabi ikuskizun publiko baino gehiago –eta gehienez bi hilabetean– antolatze-ko debekua

ta eta europar horretatik lekutara doa», nabarmendu zuten. Eskaera bat ere egin zioten Bingen Zupiria Kulturako sailburuari eta udalerrri ezberdinetako zinegotziei: «Eskatzen diegu isilik gera ez daitezen bigabekeria honen aurrean, ustez bultzatzen dituzten plan estrategikoen kontra egiten baitu zuzenean».

EZTABAIDA LEGEBILTZARREAN

Otsailaren 22an iritsi zen gaia Gasteizko Legebiltzarrerara. Josu Estarrona EH Bilduko legebiltzarkideak azalpenak eskatu zizkion Zupiriari, eta honek babestu egin zuen dekretua. «Edozein kasutan, Estarrona jauna, benetan uste dut Jaurlaritzak onartu duen dekretuak aukera ematen duela malgutasunez jokatzeko eta udalez udal eta kasuan-kasuan kontu hau malgutasunez kudeatzeko. Eta malgutasun hori denon eskuetan dago. Eta alde guztiak kontuan hartuta kudeatu behar da, udalak, ostalariak, musika areto pribatuak, herri-tarrak eta denen eskubideak kontuan hartuta», esan zuen.

Aste honetako ostegunean bertan jorratu zen berriro gaia Legebiltzarrean. Oposizioko taldeek bat egin zuten Lakuari eskatzeko bertan behera utz dezala Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legea garatzeko erregelamenduan jasotzen den urtean hamabi ikuskizun publiko edo olgeta jarduera baino gehiago –eta gehienez bi hilabete berean– antolatze-ko debekua. Halaber, eskatu zioten sei hilabeteko epean Eudel, ostalari, kultur eragile, kulturzale, artista eta sortzaileekin erregelamendua parteka eta molda dezala, besteak beste, kategoria ezberdineko lokalei ezarritako irizpideak modu adostuan erabakitze-ko.



Itziar Elizondo

Harremanak Hezkuntza Elkarteko kidea

Hurbilena «feministarazi»

osasuna / hiriarren lo(r)aldia / harremanak

3 BEGIRADA:

Bagara, hor gaudede, eta ospatzekoa da historia-ren atzealdean emakume aitzindariak abiarazi zuten borroka politiko-ari esker egun gozaten eta pairatzen dugun orainaldi zabal eta labaingarri hau.

Bai, urtero legez, egun haue-tan epizentro mediatikoa irabazten dugu, eta badira ere balizko erdigune horretan egoteak eragiten dizkigun zenbait kontraesan eta galde-ra. Izan ere, gatazkaz beteriko garaia bizitzea egokitu zaigu, zeinean pentsamendua, desioa, harremanak, sareak, en-gaiamendua, neguko paisaia ilun batean bailiran, elur sa-koetan urtzen diren. Likido bilakatu dira horiek denak akaso energia kolektiboa be-ra likidatzeko.

Horren aurrean, zorionez, egunerokotasunaren gi-harrak hezuramaitzen femi-nismoa dugu erro, mami eta amets. Nolanahi ere, kapita-lismo patriarkalak jarraitzen du dagozkigun erdiguneak eta are bazterrak kapitaliza-tzen, bere trikimailu ideologikoak liluraz eta fin erabiliz hainbat praktikaren bidetik. Hala bada, ohiturak, bizipe-nak, espazioak, sinbolikoa... kolonizatuak ditugu, azaleko-ak zein sakonekoak: kontsumitzeko ereduak, intimitatea, lantokia, sare sozialak... edota arrakasta ereduak, jendar-tekoan baloratzen eta nagusitzen dena, eztabaida prakti-kak, denboraren kudeaketa... Horretan tente-potente da-biltza patriarkatuaren tentakulu karniboroak, eta gure praktiketaren apenas jartzen ditugu auzitan.

Nola egin horren guztiaren kontra? Nola egin aurre gu-re burmuinetan iltzatzen den binarismo sinplifikatzaile eta fundamentalistaren zalapartari, ez bakarrik genero/sexuari dagokiona, baizik eta egun dinamika per-



Borroka feministak errealitate hurbilak busti behar ditu. Luis JAUREGIALTZO | FOKU

tsonal, sozial eta politi-koetan barreiatzen de-nari? Nola nabarmen-du, ez gaitasunak direlakoan, gaizki uler-tzen, gutxien eta baztertzen ditugun zaurgarritasuna, ahul-tasuna, besteekiko be-harraren premia... Ale-gia, jitoan dabilzan robot ero eta emankor patriarkalak izatetik li-bratzen gaituzten ezau-garriak? Ez gara ari *bue-nismo* antzu eta erraz-errazko bat de-fendatzen, baizik eta gure eguneroko prakti-kak nola politizatzen ditugun gatazkatzearen garrantziaz.

Horretan bidea dugu egiteko. Lehenik eta behin, errealitate hur-bila «feministarazte-ko» norberaren baitan kolatuak dauden bes-teekiko manera pa-triarkalak desgaitu beharko genituzke. Adibidez, indarrarekin lotutako gaitasun per-

sonalak harremanen zein taldeen mesederako jarriz, eta ez balore kapitalistekin kutsatutako lidergo ego patetiko baterako. Zeren eta makroan aldatu nahi ditugun botere harremanak mikroan ere ezinbestekoak dira ibilbide as-katzaile bat gauzatzeko. Izan ere, neoliberalismotik da-tozkigun zuzentasun politikoaren itxurakeriak pil-pilean daude, eta emakumeen lorpenak zein mugimendu femi-nista bera txikitzea dute helburu. Ez da harritzekoa, femi-nismoa baita egiaz sistemaren indarkeriazko erraiak age-rian jartzen eta errotik problematizatzen dituen. Beraz, patriarkatuaren fase honetan ere, aitzindariak gogoan, haren kontrako energia eta praktika guztiak beharrezko-ak dira. •

BEHATXUL[📷]TIK

Juantxo EGAÑA



BILDUMA PARTIKULARRA

«GIPUZKOA» BOUKO TRIPULANTEAK, MATXITXAKOKO BORROKALDIAREN ONDOREN

1937ko martxoaren hasieran, "Galdames" merkantzia-ontzia Baionatik Bilborantz abiatu zen, 173 bidaiari eta Euskal Gobernuak Belgikan egindako hiru tona txanpon zeramatzala. Beste alde batetik, Mexikotik "Mar Cantábrico" merkantzia-ontzia itsasoratu zen, errepublikanoentzako gerra-materialarekin kargatuta. "Galdames" ontzia eskolatzeko, Eusko Itsas Gudarosteko "Gipuzkoa", "Nabarra", "Bizkaya" eta "Donostia" bouak atera ziren. Ferroletik, berriz, Armada frankistaren "Canarias" gurutzaontzia atera zen, bi merkantzia-ontziak Bilboko portura sartzea galarazteko. Martxoaren 5ean "Canarias"-ek, euskal kostaldera hurreratzean, "Gipuzkoa" boua begiztatu zuen eta borrokaldi bat hasi zen. Haren ondorioz, "Gipuzkoa" bouko bost lagun hil ziren eta 12 zauritu. "Gipuzkoa" bouak, matxuratuta, Portugaletera sartzea lortu zuen. "Canarias"-ek "Galdames"-en aurka ere tiro egin eta lau bidaiari hil zituen. Frankistek merkantzia-ontzia harrapatu egin zuten. Halaber, "Nabarra" bouak eta "Canarias"-ek ordu eta erditik gorako borrokaldiari ekin zioten. "Nabarra" bouko tripulazioko 29 kide hil ziren, eta bizirik atera zirenak atxilotu eta kartzelatu egin zituzten. Artikulua ilustratzen duen irudiaren egilea ezezaguna da. Argazkian, Matxixakoko borrokaldiaren ondoren, "Gipuzkoa" boutik bizirik atera zirenak ageri dira, tartean ontziko komandante Manuel Galdos.

21. korrika KULTURALA

Klika^{æk}

Kalaportu

Martxoak 21 20:30 GASTEIZ Printzipal antzokian

Martxoak 23 20:30 BAIONA Antzokian
+ Georgiako KIMILIA korua + Maddi Oihenart eta Julen Achiary

Martxoak 24 19:00 DONOSTIA Victoria Eugenia antzokian

Martxoak 28 19:00 IRUÑEA Gaiarre antzokian

Jule

Martxoak 21 18:30 LIZARRA Foru Plazan

Martxoak 31 17:30 GARES Udal Plazan

Oholtza

Martxoak 22 20:00 LEKEITIO Zineman

Martxoak 26 19:30 BILBO Biran

Martxoak 29 19:30 SANTURTZI Kresala aretoan

Martxoak 30 18:00 GETXO Erromoko Kultur etxean

Martxoak 31 18:00 LESAKA Kultur etxean

Garaikideak

Martxoak 24 19:00 AGOITZ Kultur etxean

Pirritx, Porrotx eta Marimotots / Musua

Martxoak 27 18:00 LODOSA Kultur etxean

Enkarguz

Martxoak 30 18:00 TUTERA Lourdesko Zentro Zibikoan

Martxoak 31 19:00 GASTEIZ Oihaneder Euskararen Etxean

www.korrika.eus

